

## Herririk Herri |8|

Zaldibarko EAJk 2009ko aurrekontu planaren proposamena aurkeztu dau

## Ekonomia |10|

MZko enpresa-batzordeak itxialdia egin dau asteen Abadiñoko lantokian



## Berbaz |9|

Egoitz Esturo: "Bederatzigarren urtez antolatuko dogu surrandien kalejira"

# Gerediagan bide-lotunea egiteko lanak kezka iturri

Abadiñoko Gerediaga auzoa errepide sareko lotune bilakatzeko hainbat azpiegitura eraikiko ditue.

Gerediagako bizilagunak arduratuta dagoz proiektu horreek guztiek auzoan izango daben eraginaz.

A-8a zabaltzeko, lurak desjabetzeaz gain, egunean 300 kamioi pasatuko dira hondakindegira bidean.

2



Aldundiak A-8ko hirugarren erreia eraikiko dau Abadiño eta Berriz artean. Judit Fernandez

## Inauteri egitarau zabala prestatu dabe eskualdean

**Durangaldea**• Eguenzuri Eguneko kantaldiekin ekin geuntsan atzo karnabal jaia ospatzeari. Hainbat eskolaumek koplak kantatzen jardun eban han eta hemen. Datozen egunetarako Durangaldean hamai-ka ekitaldi antolatu ditue mozorroa jantzi eta jai giroaz gozatzeko. 4

## Euskara Zerbitzua, apiriletik aurrera, liburutegi zaharrean

**Elorrio**• Orain arte Turismo Partzuergoa egon den eraikiner lekualdatuko dau Udalak Euskara Zerbitzua. Leku barrian herritarrek zerbitzu hori eskuragarriago izango dabela eta gestinoak erosoago egingo ditueela nabarmendu gura izan dabe udal arduradunek. 6

## Antzerki klasikoan diharduen elorriarra

**KULTURA**• Bartzelonan, Calderón de la Barcaren antzerki obra klasikoak taulartzeko prestatzen harripatu dogu asteen Ione Irazabal antzele elorriarra. Antzerkiaz eta ipuin kontalaritzaz aritu jaku. 13

## Mallabia, Biharko Izarren topagune

**KIROLAK**• Abian da VI. Biharko Izarren pilota txapelketa. 24 pilotari gazte dabilz norgehiagoka; horreetako lau bizkaitarrak dira. Urtero legez, denek denekin eta denen kontra jokatuko dabe, multzo bitan banatuta. Lau bikote onenek finalerdiak jokatuko ditue. Ligaxkak maiatzaren erdira arte iraungo dau. 25

### • Otxandio

Oroimen historikorako beka jarri dau martxan Udalak 4

### • Atxondo

Ziarretako lanak udarako amaitzea gura dabe 3

### • Durangaldea

Hauteskunde kanpaina 8

# GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:  
LABEZOMORROAK, INURRIAK,  
JANTZISITZAK, ARRATOIAK,  
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - 48240 BERRIZ

# HERRIRIK HERRI >

## ABADIÑO

### Komunikazino sarearen lotune estrategiko izatearen bidesaria

Errepide sarearen "konexino estrategikoa" izango da Gerediaga auzoa



Proiektu honen inguruko informazio falta salatu dabe auzokideek. Judit Fernandez

U rte bi barru Iurretatik Ermu-  
ra doan tartean bi erreia  
barik hiru izango ei ditu A8  
autobideak. Alboetan Gerediaga  
auzoa izango dabe lanok. Datozen  
urteetan, Abadiño inguru hori  
komunikazino sarearen gune estra-  
tegiko bilakatuko daben trenaren

**Hirugarren erreia eraikitze-  
lanek irauten daben bitartean  
300 kamioi baino gehiago  
igaroko dira auzotik egunean**

Lebarioko kotxerak, autopistaren bidesariak zein biribilguneak eta etorkizuneko Durango-Beasain autobidea be egingo ditue auzo horretan. Ondorioz, auzoaren izaera bera, paisaia eta bizi-kalitatea kaltetuta aterako direla uste dabe auzotarrek. Proiektuaren inguruan

## GARAI

### Onartu dabe espaloia egiteko diru-laguntza

Espainiako Gobernuak 54.689 euro emongo deutzaz Udalarari egitasmoaren lehen faserako

Espainiako Gobernuak Garaiko Udalararen diru-laguntza eskaera onartu dau; San Migel kaleko urbanizazioan eragingo dauena, hain zuzen be. Guztira, 54.689 euro jasoko ditu Udalak kale horretako espaloia eraikitzeke lehenengo fasea garatu ahal izateko. Proiektuaren lanak adjudikatzeke, lehia-

**Proiektuaren lanak  
adjudikatzeke lehiaketa  
publikoa deituko dau  
Udalak datozen asteetan**

keta publikoa deituko dau Udalak datozen asteetan; "lanak ahalik eta arinen" hastea itxaroten dabe, udal ordezkarien arabera. Behin lanak hasita, eraikitzeke ardura hartzen dauen enpresak hilabete biko epea izango dau obrak amaitzeke.

Dagoeneko, Garaiko Udalak abiatuta dauka San Migel kaleko urbanizazioa. Gaur egun, Udalaxearen parean, beste aldean, dabilz lanean beharginak. Madrildik etorritako diru-laguntza horri esker, oraingo espaloia kalean gora luzatu eta lehen fasea gauzatu

dabe. Espaloia ez eze, bost kotxerendako aparkalekua be badago bertarako aurrikusita.

#### Bigarren fasea

Errepidearen kontrako aldean, proiektu honen bigarren zatia garatuko dabe. Horretarako, Udalak beste diru-laguntza eskatzeko asmoa dauka; kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiari. Eskaera hori martxoaren 6a baino lehen egin beharko dabe, eta euren arabera 114.000 euro inguru beharko dira egitasmoa aurrera ateratzeko.

**Bigarren fasean errepidea  
asfaltatu eta margotuko  
dabe, eta aparkalekuak  
norabidez aldatuko ditue**

Bigarren fasean errepidea asfaltatu eta margotuko dabe, eta gaur egun dagozen aparkalekuak norabidez aldatuko ditue. ■ M.O.

## IZURTZA

### Diru-laguntzen ordenantza aurkeztu dabe

Bariku honetan aurkeztu dau Gobernu Taldeak elkartee eta norbanakoei diru-laguntzak zehaztuko deutezen ordenantza. Euren eskariak aurkezten ditueen herriko, eskualdeko eta lurralde mailako elkarteei zentzuteko diru-laguntza emongo deutezen eta zer baldintzatan zehazten dauen ordenantza aurkeztu dabe udalbatzarrean.

Aurreko urteetan lez, aurtun be jubilatuen elkarteei eta herriko elkarteei Udalak diru-laguntza emotea jaso dabe proposamenean, eta eskaria lehenengo egin dauen Basati izeneko kirol elkartea be hartu dabe kontuan proposamenean; euren kirol jardura babestea eskatu deutso aitaturtako taldeak Izurtzako Udalarari.

#### Igerilekuen erabiltzaileak

Ohiko denez, Durangaldeko beste herri batzuetako igerilekuen erabiltzaile diren izurtzarrek herri horretan erroldatuta ez egotearen ordaindu behar izaten daben kopurua ordaintzeko diru-laguntza proposatu dau Gobernu Taldeak. ■ I.E.

**Basati kirol taldearen  
babesletza Udalak egitea  
proposatu dau plenoan  
Gobernu Taldeak**

**Eskualdeko beste herri  
batzuetako igerilekuen  
erabiltzaileei diru-laguntza**



Kalean gora luzatuko dabe espaloien hurrengo zatia.





**ATXONDO**

# Hasi ditue Ziarretako lanak, eta udarako amaitzea itxaroten dabe

Joan zen astean ekin eutseen Ziarreta auzoko egitekoei: irisgarritasuna hobetzeko lanak dira

**H**asikeran aurreikusitakoagazko atzerapenagaz, lehengo astean ekin eutseen Ziarreta auzoa irisgarritasun baldintzetara eta oinezkoendako egokitzea helburu daben lanei. Lurpetik igarotzen den saneamendusarea aztertzen dihardue orain, barrikuntzak beharrezko balira, ondorengo fase batean ekiteko.

**Oinezkoendako gunea**

Plaza inguruko lau etxebizitza blokeetako bizilagunendako zein gainerako atxondarrendako eta, batez be, oinezkoendako auzoaren barritze eta moldatzea udarako amaitzea itxaroten dabe.

Igaz osatu eban Udalak Ziarretako lanon aurrekontua, eta lanok finantzatzeko diru-laguntza bi jasotzeko eskaria be aurkeztu eben Aldundian. Cobos alkateak dinonez, baina, eskari bietako bat onartu eban Aldundiak igaz, eta aurten barriro aurkeztu dabe eskakizuna. Atzera bota eutseen proiektua "fintzeko aukera" izan dabela denpora honetan dino alkateak, eta aurten onartzea itxa-

**Sei hilabeteko exekuzino epea daukie, eta lehengo fase honetan saneamendua aztertzen dihardue langileek**

**Bizkaiko Aldundiaren bigarren diru-laguntza jasotzea itxaroten dabe**

rotan dabela. Izan be, lanak finantzatzeko oso lagungarri izango jako diru-laguntza hori Udalari. Guztira, ia 500.000 euroko aurrekontua daukien lanak dira Ziarretan burutuko ditueenak.

Sei hilabeteko exekuzino epea daukien lanak amaituta, bidegorriaren hasikera dagoen auzoan autoek barik oinezkoek izango dabe lehentasuna, Gobernu Taldeak nabarmendu dauenez. Itxurabatean, orain arte legez, auzoaren erdigunean umeendako jolasguneak jarraituko dau, baina, barriztu egingo dabe. ■ I.E.



Auzoko saneamendua aztertzen dihardue orain. I.E.

## Autobus geltokia eraikitzen

Elorriotik Bilborako noranzkoan dihardu Bizkaiko Aldundiak Atxondoko autobus geltokia izango dena eraikitzen, eta hil honen amaierarako edo martxo hasikerarako itxaroten dabe lanak amaituta izatea.

**Bitartekari lanak**

Geltokia eraikitzeko lanak amaituta, Bizkaiko Aldundiak autobus zerbitzua koordinatu daian gestinoak izango dira ondoren, eta, "horreetan bitartekari lana izango da gurea", azaldu dau Dabid Cobos herriko alkateak.

Izan be, autobusek jentea itzi eta hartzeko leku aproposaren falta izan da atxondarrak garraio publikoagandik alden du izan dituen orain arte: Atxondotik Bilbora joateko, esaterako, Abadiño edo Durangon hartu behar dabe hiribururainorako autobusa. Geltoki faltaren arazoa konponduta, zerbitzua al bait arinen martxan jartzea izango da helburua. ■ I.E.

**Hil honen amaierarako edo martxo hasikerarako amaituta gura dabe autobus geltoki barria**

# KARNABAIAK 2009

<b>EGUEN ZURI</b>	<b>19</b>
Karnabaletako ohiko kontzertua Bartolomé Ertzilla Musika Eskolan.	
<b>18:00</b>	
<b>LARUNBATA</b>	<b>21</b>
<b>SURRANDI ETA HARTZAREN KONPARTSAREKIN KALEJIRA</b>	
<i>Kriskitin Dantza Taldea, Jaizale Txistulari Elkarte, Tabira Musika Banda</i>	
Merkatu Plazan Elkartzea.	<b>18:00</b>
Irteera Merkatu Plazatik.	<b>18:30</b>
Bukaera Andra Mariako elizpean.	<b>20:00</b>
<b>ASTEARTEA</b>	<b>24</b>
Umeentzako Parkea Landako Gunean.	<b>16:00 - 20:00</b>
Txu txu trenak. Irteera: Landako Guneatik.	<b>16:00 - 20:00</b>
Gazteentzako mozorro jaialdia: diskoteka, karaokea, animazioa eta sarien zozketa. San Agustin Kultur Gunean.	<b>16:30 - 19:30</b>
Haurrentzako musikala: "Xurdinen kontzertua" Landako Gunean.	<b>17:30</b>
<b>EKINTZAK ADINEKOEN UDAL EGOITZAN</b>	
Tostada lehiaketaren III. edizioa.	<b>17:30-18:00</b>
DUO TWISTER-ekin musika ikuskizun berria.	<b>18:00-19:30</b>
Tostada lehiaketaren sari banaketa.	<b>19:30</b>

**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento



**DURANGALDEA**

Inauterietan parte hartzeko hamaika aukera topatu leiteke eskualdeko herrietan prestatu ditueen egitarauetan.

Surrandi eta Hartzaren Konpartsak Durangoko kaleak zeharkatuko ditu bihar, otsailaren 21ean. Martitzenean, adin guztietakoentzako ekitaldiak antolatuko ditue: umeendako parkea, gazteendako mozorro jaialdia eta, nagusien egoitzan, tostada lehiaketa eta dantzaldia.

Zaldibarren umeek egun osoko jai giroaz gozatzeko aukera izango dabe. Goizean umeak mozorrotuta kalejiran irtengo dira. Arratsaldean mozorro lehiaketan parte hartzeko aukera izango dabe.

Erromeria giroan pasatuko dabe Mozorro Eguna iurretarek. Bazkaria egingo dabe eta Luhartz taldeagaz dantzaldia iluntzera arte luzatuko da.

**La Baldufa antzerki taldeak 'Baserriko saltsan' lana taularatuko dau Arriolan**

Inauterietako egitaraua prestatu dabe Mallabian be. Gaur arratsaldean bertso poteoa mozorrotuta egingo dabe. Gauean, erromeria doinuekin dantzan egiteko aukera izango da plazan. Bihar arratsaldean, txitxiburduntzi eta txokolatada egingo ditue Traba-ku-Goikoan. Martitzenean, goizean umeentzako egitaraua antolatuko dabe eskolan eta, arratsaldean, txokolatada, erromeria eta mozorro lehiaketa be bai.

Berrizen, gaur arratsalderako umeentzako musika emanaldia

# Mozorroz eta kolorez jantzita datozen karnabalak

Inauterietan gozatzeko egitarau oparoa prestatu dabe Durangaldean



Durangoko gazteek San Agustin kultur gunean izango dabe hitzordua. Kepa Aginako

eta txokolate dastaketa prestatu ditue. Bihar arratsaldean, koadri- len topaketaren eta mozorro lehiaketaren ondoren, jai giroagaz jarraitzeko herri-afaria eta erromeria antolatuko ditue.

'Gazteneo Dantz' emanaldia izango da Elorrioren, bihar arratsal-

dean Ateneoan. Zapatuan, ikas- tetxeetako mozorro desfilea, haur parkea eta antzerkia izango dira. Arratsaldean, Abiba diskojaiaren musikak plazara gerturatzen direnak dantzan jarriko ditu. Denendako txokolatea izango da. Mañarian be txokolaterik ez da faltako

martitzenean Errekondo taber- nan. Otsailaren 28an, Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia izan- go da, arratsaldeko 17:00etan frontoian. Azkenik, Otxandion bihar eguerdian txupinazoa botako dabe; arratsaldean, barriz, kaleji- ran irtengo dira bandarekin. ■ J.G.

**OTXANDIO**

## Oroimen historikorako beka deialdia

Espainiako Gerra Zibilak herrian eduki eban eragina aztertzeko beka martxan jarriko dau Udala, Eusko Ikaskuntzagaz batera. Bekaren helburua "otxandiarren oroimen historikoa berreskuratzeko bidean egindako lanak bildu eta ikerketa lerro barriak zabaltzea" da.

Oroimen historikoaren ikerketan parte hartu gura dabenek, historian adituak izan edo Gerra Zibilaren azterlanetan eskarmentua eduki beharko dabe. Interesdunak banaka zein taldean aurkeztu daitezke, martxoaren 30a baino lehenago. Otxandion eta inguruko herrietan erroldatutakoek lehen tasuna edukiko dabe.

**Lana 2011n jendaurrean aurkeztuko dabe, faxistek herria bonbardatu ebenerako 75. urteurrenean**

Bekak 18 hileko iraupena edukiko dau. Ondoren, "Lana 2011n jendaurrean aurkeztuko da", azaldu dau Txomin Bengoa kultura zinegotziak, "faxistek herria bonbardatu eta 75 urtera". Euskaraz garatutako lana izango badabe, beste hizkuntzetara itzultzea aurreikusiko dabe. Deialdiaren iragarki ofiziala [www.otxandio.net](http://www.otxandio.net) orrialdean topatu daiteke. ■ Maria González

## Eguenzuri abestera irten dau hainbat eskolaumek

Karnabalei kantuan emon deutsee hasiera



Kurutzia gako ikasleak Ezkurdin ikusi doguz kantuan. J.F.

Karnabalei jai egunak Eguenzuriko koplak kantatuz hasteko ohiturari eutsiz, Durangaldeko hainbat eskolaumek kalera irten eben atzo. Kopla truke, inguruetatik zebilzen batzuek dirua jarri eben ikasleen zakuan. Krisi sasoi eskean joateko sasoi onena ez izan arren, ohitura mantendu dabe gazteek.

**Eguenzuri Egunez sokamuturra egiten ei zen Durangoko kaleetan**

Gerediaga elkarrekin Durango-ko aratusteen gainean egindako azterketan dinon lez, 'eguenzuri', 'bariku argi', 'zapatu erregular', 'domeka karnabal', 'astelen karnabal' eta 'martitzen karnabal' dira inauterietako ospakizunak. Ikerketaren arabera, Durangon Eguenzuri Egunez danbolintero taldeak Zortziko karnabal doinua jotzen eban eta sokamuturra be egiten ei zen. ■ J.G.

**MAÑARIA**

## Argentinan hartutako argazkien emanaldia

Herriatr bik Patagonian hartutako argazkien emanaldia otsailaren 22rako antolatu dabe

2007ko gabonetan Argentinara, Patagonia eskualdera egin eben bidaian hartutako ehun bat argazkiren artetik aukeratutako emanaldia egingo dabe, domekan 18:30ean hasita, Liburutegian, Maria eta Aitor herritarrek. Film emanaldiaren ondoren eskainiko ditue diapositibak.

Oinezko ibilbideak burutze- ra joan ziren orain bi urte mañariar biak Alpino mendi taldeak

**Orain urte bi Patagoniara egindako bidaian hartutako argazkiak erakutsiko ditue**

antolatutako bidaian Argentinara. Bidaia haretan ikusi zitueen inguru hareetako paisaiak gorde zitueen argazkietan, eta horreek herri ikuspegi erakusteko hitzordua da antolatu dabena; euren berbetan, "han ikusi genduen lagunekin konpartitzeko, eta, bide batez, guztiek domekarako lagun arteko arratsalde-pasa egiteko aukera legez".

Ordu erdiko emanaldi xumea prestatu dabela nabarmendu deuskue domekako emanaldia egingo dabenean, eta Patagonia euren argazkien bitartez ezagutu gura leukien herritar guztiak gonbidatu ditue. ■ I.E.

BILBAO ASEGURUAK | Jabier Rueda | CATALANA OCCIDENTE

gremioen koordinazioa  
**urutiaga**  
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak  
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi  
erakusketa, salmenta eta ipintzea  
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

**Betikoak**  
flexografia  
ofizinarako zigiluak  
fotolitoak  
Bixente Kapinaga, 9 - 48215 IURRETA  
Tel.: 94 620 22 41

# HILABETE HONETAN RENAULT GAURSA-N... UTZI KRISIA ALDE BATERA!!!



**RENAULT CLIO**  
AUTHENTIQUE 1.5DCI 3P 65 CV  
(2006) **5.800\*€**



**RENAULT MODUS**  
DYNAMIQUE 1.4 16V 5P 100 CV  
(2006) **7.500\*€**



**RENAULT KANGOO EXPRESS**  
1.5DCI 65 CV  
(2006) **8.500\*€**



**RENAULT MEGANE**  
C. DYNAMIQUE 1.5DCI 5P 105 CV  
(2006) **12.400\*€**



**RENAULT LAGUNA**  
EXPRESSION 2.0DCI 5P 130 CV  
(2006) **19.250\*€**



**SEAT IBIZA**  
REFERENCE 1.9SDI 5P 65 CV  
(2005) **7.800\*€**



**OPEL ASTRA**  
ENJOY 1.7CDTI 5P 100 CV  
(2005) **9.800\*€**



**NISSAN ALMERA**  
VISA 2.2DCI 3P 136 CV  
(2005) **10.800\*€**

\*P.S.P. transferentzia gastuak barne. 09/03/31 arte edo izakirik amaitu arte balio duen eskaintza.  
Erakutsitako eta eskainitako bertsioak ezberdinak izan daitezke.

**RENAULT  
OCASIÓN**

**GAURSA**  
ARRIANDI, 12. IURRETA. TELEFONOA: 94 620 33 00. [www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)





ELORRIO

## 21 urte beteko ditu bihar Gaztetxeak

Bihar beteko dira 21 urte Elorriko Gaztetxea okupatu ebela. Gaur, egun eta herri osoan zehar banatutako ekitaldi sortarekin ospatuko dabe urteurrena.

Goizean hasiko dira ekitaldiak. Freestyle saioagaz batera, tirolina eta kaxa jolasa izango dira, beste hainbaten artean. Ondoren, 13:00etan trikipoteoa egingo dabe, jai giroa kalera eta herriko tabernetara zabalduz. 14:00etan omenaldia egingo dabe San Josen.

### Kiroldegiko frontoian bazkalduko dabe eta bertsolarien saioa izango da

15:00etan denak Kiroldegiko frontoian elkartuko dira, bazkaltzeko. Bazkalostean Gaztetxeak urte honeetan guztietan izan dauen garapena ikusteko modua egongo da, argazkien bitartez. Ondoren, bertsolariak kantari ariko dira.

**Kalejira eta kontzertuak**  
Arratsaldean, 18:00etan, Kiroldegiko frontoian abiatuta kalejira irtingo dira. Azkenik, jai eguna errematatzeko, kontzertu interesgarri bi antolatu ditue Gaztetxean; All Jazz Era eta Laket taldeak ariko dira zuzenean.

### All Jazz Era eta Laket taldeak kontzertua emongo dabe, 22:30etik aurrera

# Euskara Zerbitzua lehengo liburutegira eroango dabe

Udaletxetik kalera aterako dabe herritarrentzat erosoagoa izango delakoan



Saso batera arte, denpora luzez, liburutegia izan zen eraikin horretan. Iban Gorriti

**S**aso batean liburutegia izan zen eraikinean Turismo Patzuergoa egon da orain-tsu arte, 14 bat hilabetez. Patzuergoa, ordea, bertan behera geratu da abenduko batzar orokorraren ondoren. Horrela, eraikina hutsik dagoenez, Udalak Euskara Zerbitzua haraxe tokialdatzea erabaki dau. Horrela, herritarrek eskuragarriago edukiko dabe eta gestioak erosotu egingo ditu.

Toki aldaketa apirilera egi-tea gura dabe. Halan be, aurretik hainbat lan egin behar ditue. Bate-tik, lokala altzairuz eta beharrez-ko ekipo teknikoaz jantzi behar dabe. Bestetik, orain ezinezkoa litzateke Udaletxearen eta eraikin horren artean Intranet bat sortzea -hau da, ezingo leukienez batek bes-tearen artxiboak irakurri- eta bat-bateko komunikazio hori beharrezkoa da funtzionamendu ego-

kia bermatzeko. Horregaitik, Citrix zerbitzaria ipiniko dabe, erredundantzia eta birtualizazioa barne dituen sistema. Modu horretara, bi eremuak konektatuta egongo omen dira. ■ J.D.

### Oraindino ez dabe erabaki Udaletxean hutsik geratuko den gela zertara bideratu

## Telefonoen estaldura aztertuko dabe

Gaur hasi eta hilabete bitan luza-tu den ikerketagaz helburu nagusi bi bete gura ditu Udalak: bate-tik, herrian antenen arloan zer azpiegitura dagoen (zer ekipo eta zer teknologia, zehazki) jakin gura dau, azken hamar urteotan, mugikorren boomagaz, ildo horretako azpiegiturak ugari-tu egin direlako; bestetik, uhinen helmen ahalmenazekin den jakin gura dabe, jakiteko herriko zer puntutan daukiezen estaldura arazoak. Izan be, herritarren partetik ke-xak izan ei dira estal-dura arazoengaitik.

### Herriko toki batzuetan estaldura arazoak dagoz, eta herritarren partetik ke-xak egon izan dira

Gaur egun, Elorri-ko lau antena dagoz, hiru tokitan: Arriarten (Eroski inguruan) eta Igurian bana dagoz, eta Gazeta auzoan, barriz, bi.

Azterketa EuskoIker fun-dazinoak gauzatuko dau, 7.000 euroko aurrekontuagaz. Udal arduradunek argitu dabenez, EuskoIkerrek Eudelekin lan egin izan dau, besteak beste.

Azterketa horretan ager-tzen denagaz erabakiko dabe estalduraren arazoak zelan kon-pondu. Lan hori hirigintza batzordeagaz elkarlanean egin beharrekola dela dinoe. Hor har-tutako erabakiak Hiri Antola-mendurako Plan Orokorra-k jasoko ditu. ■ J.D.

MALLABIA

## Jarduerarik sendoenei helduko deutsee 2009an

Orraittiok aurtengo aurrekontua onartu dau



Orraittioko hainbat kide joan zen batzarrera. I. Uribelarrea

Orraittio euskara elkarteak zapa-tuan Batzar Orokorra egin eban. Ondoren, Trabaku Goikoa jate-txean bazkaldu eban.

Orraittiok 2008an hainbat eki-taldi gauzatu eban, Mallabian euskararen erabilera suspertzeko

### Bertso jaialdia martxoaren 29an izango da, frontoian; urteko aurrekontuaren heren bi hartuko ditu ekitaldi horrek

asmoz. Zenbait ekitaldi "ezin hobeto hartu dau herriak", hala nola, udabarriko bertso-jaialdia, Mallabiko baselizen ibilaldia, Gaz-tainerre Eguna eta Gabonetako bertso-triki-kalejira. Horregaitik, 2009an be horreei heltzeko asmoa azaldu dabe bazkideek.

**Martxoan, bertso jaialdia**  
Orraittiok 2009an aurreko urte-otan herrian sendoen ikusi dituen ekitaldiak mantenduko ditu. Horretara, martxoaren 29an ber-tso jaialdia antolatuko dau, Malla-bia I frontoian. Besteak beste,

### Orraittioko kideak hilaren lehenengo zapatuan herriko Kultur Etxean elkartzen dira

Beñat Ugartetxea, Unai Iturriaga, Joxe Agirre, Maialen Lujanbio eta Amaia Agirre bertsolariak ariko dira. Bertso jaialdia Orraittioren urteko aurrekontuaren heren bi hartuko ditu.

Orraittio 2004an eratu eban eta 25 bazkide ditu. Hilaren lehe-nengo zapatuan Kultur Etxean batzen dira eta "gura dauen edo-nork parte hartu leike". ■ M.G.

## Ezker abertzaleak Eugenio "Txo" Aranburu omendu dau, Astarloan

Mallabiko ezker abertzaleak Eugenio "Txo" Aranburu omendu eban domekan, Astarloa mendian. Aranburu Mallabiko zinegotzia, LABeko kidea eta Herri Batasuneko Mahai Nazionalako kidea izan zen. Aranburu orain hamabi urte hil zen, Espainiako Auzitegi Gore-nak HB *Alternatiba demokratikoa* zabaltzeagaitik epaitu aurre-tik. Domekan Iñaki Mallagarairen hautsak be zabaldu zitueen Astar-loan. Mallagarai Mallabiko zinegotzi be izan zen. Omenaldia eta gero, Izar Gorri elkartearen herri-bazkaria egin eban. ■ M.G.



J.F.



**DURANGO**

# AHTa egiten hasi direla jakinarazi dau Elkarlanak

Lanon inguruan Udalak informaziorik emon ez izana salatu dabe

**A**biadura Handiko Trena (AHT) eraikitze lanak orain dela hilabete hasi ziren Durangon, AHT Gelditu! Elkarlanak prentsaurreko bitartez azaldu dauenez.

Udaletxe aurrean egindako agerraldian adierazi dabenez, "lotsagarria da obrak hasi direla herritarrok publiko egitea, gure Udala isilik dago eta hasiera hasieratik". Jakin eragin dabenez, "proiektu osoan bezala, orain be ezkutuan jokatzan dabilz". Informazio eza proiektu osoan zehar oso nabarmena izan dela salatu

dabe: "AHTak eragin kaltegarria izango dau gure bizitzan eta, halan be, ez dogu merezi obrak hasi direla jakiterik be?", gaineratu dabe.

Azkenaldian "gauza arraroak" gertatu direla be badinoe. Durangoko desjabetzeak deituta zegozen egunetan bertan behera itzi zitueen "AHTaren proiektuan aldaketak egingura zitueelako". Horrela bazen, desjabetzeak zergaitik deitu zitueen galdetu dabe.

Aldaketak egin eta gero, Izurtzako lurak obretatik kanpora gelditu zirela ikusita, lanak hasi baino hiru hilabete lehenago tra-

zatu guztiz zehaztu barik egotea "ulertezina" dela deritzoe; baita Durangoko Udalak abenduan desjabetzeak ez sinatzea Tabirako zubi-bidearen inguruan "trazatua negoziatzen zebilzelako" be.

AHT Gelditu! Elkarlanak zapatuan Durangon egingo dabenez manifestazioan parte hartzeko deia egin dau. ■ Jone Guenetxea

**AHTaren eragina salatzenko manifestazioa Plateruena kafe antzoki ondotik irtengo da zapatuan, 12:30ean**



AHT Gelditu! Elkarlanak Udaletxe aurrean emon eban prentsaurrekoa. Judit Fernandez

## Baliabideen Gida sarean dago, zazpi hizkuntzatan

Kultur aniztasuna abiapuntu hartuta sortu dabe

Durangoko zein inguruko testu inguru sozial geroago eta anitzagoa abiapuntu hartuta, herrian bizitzeko oinarriko Baliabideen Gida sarean jarri dau Udalak, [www.durangonbizi.net](http://www.durangonbizi.net) helbidean. Zazpi hizkuntzatan irakurri daiteke informazioa: euskaraz, gaztelaz, ingelesez, frantsesez, errumanieraz, arabieraz eta txineraz.

Era berean, gida horren beste helburu bat da tresna erabilgarria izatea edozeinendako, herrian dagozen zerbitzuak, baliabideak

eta bestelakoak ezagutzeko, informazio hori guztia biltzen dau eta.

**Deneriko atalak**

Web orrian udal jardueren gaineko informazioa aurkitu daiteke: errolatzeak, gizarte zerbitzuak, osasun-laguntza... Bestalde, eguneroko bizitzarako erabilgarria izan leitekeen informazioa ipini dabe: heziketa, drogomenpekotasuna, herritarren segurtasuna... Tratu txarren biktimei zuzendutako informazioa be badago.

Informazio orokorragoa be sartu dabe. Horrela, egoitza-baimenaren edo lan-baimenaren gainean dudak dituen edonork informazio zehatza aurkituko dau webgunean, aitatutako zazpi hizkuntzetan. ■ J.D.

**Euskaraz, gaztelaz, ingelesez, frantsesez, errumanieraz, arabieraz eta txineraz idatziko dabe**

**BERRIZ**

## Maila handiko kontzertua Modesto Aranaren omenez

Giro polita izan zen Euskeria abesbatzaren saioan



Euskeriak goi mailako kontzertua eskaini eban. J. Fernandez

Joan zen barikuan, Modesto Arana Fuldain musikari berriztarra jaio zela 100 urte bete zirela gogoratzeko, Bilboko Koral Elkarteko Euskeria abesbatzak kontzertua eskaini eban San Joan Ebanjelariaren Elizan; Arana abesbatza horretako zuzendari izan zen. Jente nahikotxo batu zen kontzertura, eta, ez ziren damutuko, ez. Euskeriak goi mailako emanaldia eskaini eban. Besteak beste, Aranaren konposatutako pieza bi abestu zitueen: *Oración Misional* eta *Tantun Ergo*.

**Aranaren pieza bi jo zitueen: 'Tantun Ergo' eta 'Oración Misional'**

Kontzertua beste hamabi piezekin osatu eban, euskal konposizioak tartean: *Maitia nun zira*, *Maiteak galdegin zautan* eta *Atxa Mitxa*. ■ J.D.

## Azokarik arrakastatsuen krisi sasoiari aurre eginez

IV. Aukera Azokak 18.000 bisita jaso ditu



Landako Gunea jentetz gainezka egon da asteburuan. J.F.

Krisi sasoiaren erasleek inoiz baino premina handiagoz bilatzen dabe pagotxa. Horrexek azaldu leike +Dendak elkartek joan zen asteburuan Landako Gunean antolatutako IV. Aukera Azokak izan dauen arrakasta itzela. Antolatzaileek jakitera emon dabenez, barikutik domekara bitartean zabalik egon den azokak 18.000 lagun bisita jaso dau. Igaz baino 3.000 lagun gehiago hurreratu dira aurtun Durangoko dendarien azokara.

Irekiera egunean 23 standez osatutako merkatua jentetz lepo zegoen. Baina, bisitarien jeneroa begiratzear gainera, erosi be egin dabe, horixe da eta dendariak behar dabena. Jakin eragin dabe-

nez, guztira, 16.000 salmentatik gora egin ditue.

+Dendak elkarteko ardurenekin dinoenez, dendari batzuk udako beherapenetan be azoka antolatzea gurako leukien arren, oraingoz ez daukie urtean birritan antolatzeko asmorik.

Jentea erakarri guran, umeentzako antolatutako ekitaldiek be harrera ezin hobea izan ei dabe. "Txikiparka gertu izateak be asko lagundu deusku", dinoe antolatzaileek. ■ J.G.

**Aukera Azokak izan dauen arrakastak aurreikuspen guztiak gaintu ditu**

IURRETA

# Trafikoa arautuko dauen ordenantza prest dago

Alegazinoen epea amaitzen denean emongo deusie behin betirako baietza



Iurretako sarreran ohikoa da autoak bigarran ilaran aparkatuta ikustea

Udal jabetzako herri barruko bideen segurtasuna, erabilera eta trafikoa arautuko dituen ordenantza onartu eben, behin behinean, joan zen asteko udalbatzarrean. Ordenantza horren helburua herri bideetako trafikoa, zirkulazioa, segurtasuna eta erabilera arautzea da.

Espedientea jendaurrean azalduko dabe 30 lan-eguneko epean, Bizkaiko Boletin Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horre-

tan alegazinoak aurkeztu ahal izango dira. Ordenantza zehazten dira zeintzuk diren arau-hauste larriak eta zeintzuk arinagoak. Arau-hauste bakotxari jagokozen zigorrak be zehaztu ditue. Ordenantza betetzeko ardura herriko

**Alegazinoen epea amaituta, apirilean indarrean izan leitekeela uste dabe udal arduradunek**

bost udaltzainek izango dabe. Alegazinoen epea pasatu eta behin betirako onartzen dabenean enpresa pribatu bati esleituko deusie isunen gestinoa. Udal ordezkarien esanetan, atzerapenik ezean, apirilerako indarrean izan leiteke ordenantza.

Igaz arte Ertzaintzak eroaten eban isunen gestinoa, baina Jaur-laritzak udalerriei jakinarazi eutsen gestino hori tokian tokiko Udalen esku itziko ebela. Horregaitik egin dabe ordenantza. ■ J.D.

ZALDIBAR

# Aurrekontu proposamena aurkeztu dau Udal Gobernuak

"Murrizketa" aurreikusi dabela dino alkateak

Datorren astean edo hurrengoan udalbatzarrean eroango dauen 2009ko aurrekontu proposamenaren aurkezpenera deitu ditu Idoia Mendiola alkateak hedabideak eguen honetan. Azaldu dauenez, "krisiaren eragina" nabari daben aurrekontuak dira Gobernu Taldeak hurrengo udalbatzarrean eroango dituenak.

Aurtengo urterako Udalaren kutxan lau milio euroko sarrerak irteerak itzaroten ditue elajastotzen daben aurrekontua da, inbertsionetarako milioi eta erdi euroko diru-atala aurreikusten dauena. Aurtengaratu asmo ditue inbertsion nagusietako bi Gatzaga auzoari jagokozenak dira: 620.000 euro bideratu asmo ditue Gatzaga

bide zaharraren konponketa eta auzoko saneamenduko lanetara. Diru-atal txikiagoagaz baina inbertsionen artean dagoz Udal Liburutegia lekuz aldatzea, Bilbo etorbidea atontzea eta Udaltxeko birgaitze lanak.

**620.000 euro bideratu asmo ditue Gatzagako bidea eta saneamendua egokitzeko**

**HAUTESKUNDEAK**

## Bihar, EAJk gaztetxoei begirako ekitaldia egingo dau Durangon

Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde kanpainaren barruan, *Orain inoiz baino gehiago* leloarekin herririk herri egiten diharduen ekitaldi sortan kokaturik, Eusko Alderdi Jeltzaleak Durangoko Andra Mariako elizpean gaztetxoei begirako proposamenak burutuko ditu larunbat honetan, otsailaren 21ean, goizeko 11:00etatik aurrera. Beste hainbat eskaintzaren artean, tailerrak eta puzgarriak ipiniko ditue elizpean bertaratzten diren umeen gozamenerako.

## Besaide tontorrean batu zen PSE-EE 'Bilgunea' irudikatuz

PSE-EEK Besaide gainean egin eban eguaztenean bere ekitaldia *Besaide mendia, Euskadiren elkargunea* lelopean. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak bat egiten dabenean puntua azpimarratzen dauen harriaren gainera igon eban Patxi Lopez lehendakariak, bere alderdikideen babesa zeukala. Horrez gainera, joan zen barikuan Andoni Unzu PSE-EEko hautagai independentea eta Edu Madina Zornotzako Zelaieta Zentroan izan ziren. Azkenik, asteburuan publizitate karabana egingo dabe sozialistek eskualdean zehar.

## Astelehenean Javier Madrazok Durangon egingo dau ekitaldia

Ezker Batuak-Berdeak alderdiak astelehenean ekitaldia egingo dau Durangon, Andra Mariako elizpean. Hantxe izango dira, 18:30etik 20:00ak arte, Javier Madrazo lehendakariak eta Nando Consuegra Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako sailburuordea. Programa elektoraleko triptikoak banatuko ditue batzen diren artean. Horrez gainera, Madrazok zein Consuegrak hitzaldi labur bana eskainiko dabe alderdi moduan hartuko ditueen konpromisoen eta lan-ildoen barri emetoko.

## Aralarren hiru hautagaiak Durangoko Elkartegian, bihar

Bihar, goizeko 11:30ean, Aralar alderdi politikoak kanpainako mitina egingo dau Durangoko Elkartegian. Hantxe izango dira Patxi Zabaleta (koordinatzaile nagusia), Dani Maeztu (Bizkaiko hautagaia), Aintzane Ezenarro (Gipuzkoako hautagaia) eta Mikel Basabe (Arabako hautagaia). Aralar alderdiaren ildo nagusiak azalduko deusez bertaratzten direnei. Bestalde, atzo goizean beste ekitaldi bat egin eben Ermuan, Cardinal Orbe Plazan. Alderdiko propaganda banatu eben kalean.

## Ezker abertzaleak "urrezko botoa" eskatuko dau Durangon

Ezker abertzaleak ekitaldi politiko egingo dau bihar Andra Mariako elizpean, "urrezko botoa" eskatzeko. Ekitaldia arratsalde izango da, 19:30ean hasita. Azken asteetan Durangaldean manifestazio bat baino gehiago izan da D3M lege kanpora itzi izana salatuz, joan zen astean Auzitegi Kostituzionalak Gorenaren epaia berretsi eta gero. Martitzenean, Baltasar Garzon Auzitegi Nazionalako epaileak D3M eta Askatasunaren jarduerak eteteko agindu eban hiru urterako. Ezker abertzaleak, halan be, kanpainan eta hauteskundeetan egongo dela dino.

HERRIRIK HERRI ATALAREN BABESLE

**BFA  
DFB**

Bizkaiko Foru Aldundia



## BERBAZ &gt;

# “Durangar guztiek ‘surrandi’ mozorrotuta kalejiran parte hartzea gurako geunke”

Inauteri giroan murgilduta, batek baino gehiagok ez dau jakingo oraindino zer mozorro aukeratu. Hona hemen Kriskitin dantza taldearen proposamena: surrandi maskara jantzi eta kalejiran irtetzea bihar

**K**riskitin dantza taldeak, Durangoko aratusteetako ohiturak berreskuratu guran, Surrandi eta Hartzaren Konpartsagaz kalejira antolatzen dau urtero uriko kaleetan zehar. Egoitz Esturo dantzariak prest dauka bere surrandi maskara zapatuko kalejiran parte hartzeko.

*Zelan berreskuratu dozue surrandien inguruko tradizioa?*

Hainbat urtetan Lantzeko inauterietako mozorroekin jantzita urten izan dogu. Gerediaga elkarteak Durangoko inauterien inguruko informazioa jaso eban, eta datu horreetan oinarritu ginen surrandien ohitura berreskuratzeke.

*Ohitura hori zertan datza?*

Antza denez, Egun Zuri Egunez umeez etxerik etxe irtetzen eben abesten. Sokamuturrak eta erromeriak be egoten ziren, eta baita bi konpartsa be: Hartzarena eta Surrandiarena. Batek astelehenean irtetzen eban eta besteak martitzenean. Guk ohitura hori zapatu bakarrean bateratu genduen. Surrandiek maskaragaz irten eta ingurukoak zirikatzen zitueen. Beste karnabal batzuetako pertsonaien antz handia daukie.

*Maskara elementu garrantzitsua da.*

Bai, eta, antza denez, bere sasoiaren debekatuta zegoen maskara horregaz Andra Mariko elizpean sartzea. Babeseko lekua izaten zen. Guk, zortziretako kanpaiak jotzerakoan maskarak kentzen doguz, eta elizpean dantzan egiten dogu.

*Aurretik, baina, kalejira antolatzen dozue.*

Seietan txokolatea banatzen dogu merkatu plazan, eta ondoren kalejiran irtetzen dogu. Montevideotik Plateruen Plazara joaten gara. Antzokian dantzan egin, eta Oiz kaletik Ezkurdiko bidea hartzen dogu. Artekaletik Udaletxeko plazara eta Goienkaletik behera etortzen gara, zortzietarako elizpera sartzeko.

*Surrandien mozorroagaz Kriskitinekin bat egiterik badago?*

Kriskitinek antolatu arren, herritar guztiei zabalduetako ekitaldia da. Jentea egun horretan surrandiz mozorrotzea da gura doguna. Ume asko etortzen da, baina nagusiagoak etortzea be gurako geunke. Tradizino bat galitzen denean gatxa da berreskuratzea, baina ahalegina egiten gabilz.

*Antza denez, behinolako surrandiei ‘poteoa’ gustatzen jaken?*

Bai. Batutako informazioaren arabera, surrandiak tabernaz taberna ibil-



Iban Gorriti

“Lehengo ohiturak berreskuratzea gatxan arren, Durangoko aratusteak aintzinako erara antolatzen gabilz 2000. urtetik”

tzen ziren, eta, danbolinteroek erretirada jotzen eben, etxera joateko ordua zela esanez.

*Surrandiek euren musika be badaukie.*

Abestien musika Jesus Egiguren, Ander Ertzilla eta Ane Belaustegik sortu eben.

“Surrandiak ingurukoak zirikatzen ibiltzen zirenez, arazorik ez gertatzeko Udalak araudi zorrotza kaleratzen eban”

Berbak Unai Iturriagak eta Kriskitinek jarri geuntsazen.

*Zeuek be musikariekin bat egiten dozue.*

Durangaldeko Txistulari Elkarteagaz eta Tabirako Musika Bandagaz egiten dogu kalejira.

**Egoitz Esturo •**

**Kriskitin dantza taldeko kidea**

▪ 31 urte ditu

▪ Irakaslea da

*Dantzak berreskuratzeke ildotik, ‘Platillu Soinua’ be plazaratu dozue.*

Durangaldeko Dantzari Dantzaren barruan dantza batzuk berreskuratu ziren, eta Platillu Soinua ez. Humbolte bere liburu baten dantza hori azaltzen dau. Durangokoa izanda, *Platillu Soinua* berreskuratzeari garrantzitsua eritzi geuntsan.

*Kriskitinek 22 urte bete ditu. Ibilbide horretan ikuskizun ugari antolatu dozue.*

Iraupen luzeko hainbat ikuskizun taularatu dogu. Konturatu gara gizartea garatzen doan heinean, orain, formatu txikiagoko emanaldiek harrera hobea daukiela. Gaika sortutako saioak egiteari ekin geuntsan; kostaldeko dantzetan oinarritutako erromeria edo Akelarrea, adibidez.

*Beste talde batzuekin hartu-emon berezirik badaukazue.*

Galiziara dantzan egitera joateko aukera izan genduen, eta hortik sortu zen beste talde batzuekin elkartruketa egiteko aukera. Halantxik sortu zen ‘Durangon Folk’. Greziara joan ginen dantza egitera, eta talde ha hona etortzerakoan ‘Nazioarteko Jaialdia’ sortu genduen.

*Aurten nora zoazie?*

Europeade jaialdian parte hartzera goaz, Lituaniara. Ez da kanpora goazen lehenengo aldia. AEBetara, Letoniara eta beste hainbat lekutara bidaiatu dogu. ■ Jone Guenetxea

# EKONOMIA<sup>></sup>

## > DURANGALDEA

### MZko langileek 24 orduko itxialdia egin dabe Abadiñon

Mendiguren Zarrauako (MZ) langileek mobilizazioekin jarraitzen dabe, zuzendaritzak hartu dituen neurriak salatu guran. Enpresa-batzordeak 24 orduko itxialdia egin dau asteon, Abadiñoko egoitzako bulegoetan. Protesta ekitaldi horregaz urtarreleko nomina eta Gabonetako aparteko saria kobratu ez izanaz gainera, enpresa horretako langileen etorkizuntzako irtenbidea exijitu dabe.

MZ taldeak Abadiñon eta Berrizen 372 beharginek dihardueen lantoki bi ditu. Uztaile arte enplegu-erregulazio espedientea aplikatzen dabilzela gogorazi dau enpresa-batzordeak. Sindi-

MZko langileek dinoenez, urtarrelean ez dabe nominarik kobratu; Gabonetako saririk be ez

katuek salatu dabenez, zuzendaritzak bi batzordeei bideragarritasun plana aurketu deutse. Beste neurri batzuen artean, 60 langileren kaleratzea, 2009rako %15eko soldata jaitsiera eta 2010 eta 2011 urteetan soldatarik ez izatea da zuzendaritzak proposatu dauena.

#### Manifestazioa

LABek joan zen zapatuan Durangon egindako manifestazioan MZren egoeran dagoen enpresak gogora ekarri zituen. Esku artean ditueen datuen arabera, eskualdean dagoeneko 30 enpresa dagoz erregulazioan. ■ J.G.

Zuzendaritzak 60 langile kaleratu eta soldatak %15 jaitea proposatu dau

## > ABADIÑO

### Enpresa txiki eta ertainei laguntzeko jardunaldiak

ETEek krisiari aurre egiteko baliabideak eskaintzea da jardunaldi honekin Udalak lortu gura dauena. Langileentzako be antolatuko dabe laster

Abadiñoko Udalak enpresa txiki eta ertainei (ETE) zuzendutako jardunaldia antolatuko dau otsailaren 24an. Udal ordezkarien esanetan, "krisi sasoiaren mota honetako enpresei laguntzeko neurriak zeintzuk izan leitezkeen erabaki aurretik, ezinbestekoa da eurekin elkartu eta ditueen beharrak ezagutzea".

Errota kultur etxean egingo ditueen jardunaldietan, hainbat arlo ekonomiko adituek parte hartuko dabe. Armando Reyes eskualdeko INEMeko bulegoko zuzendariak enplegu-erregulazioaren eta langabeziako laguntzen gainean berba egingo dau.

Ondoren, Fundación Tripartitako ordezkari batek erregulazio sasoiaren dagoen formaziorako politiken barri emongo dau. La Caixako arduradunak ETEen finantza-egituraren laguntzak hartuko ditu berbagai. Azkenik, Manuel Arrieta SPRIko zuzendariordeak krisian dagoen enpresen berregituraketa bultzatzeko laguntzak eta enplegua sortzen daben inbertsioak azalduko ditu.

Krisi ekonomikoari aurre egiteko bitartekoak jartzeko helburuagaz, langileei zuzenduta beste jardunaldi batzuk antolatzeko asmoa daukala aurreratu dau Udalak. ■ Jone Guenetxea

## > DURANGALDEA

### Erraldek diru-laguntzarik jaso ez izana salatu dau

Aldundiaren aldetik ez ei dabe erantzunik jaso



Erraldek Berrizen emon dau egoeraren barri. Iban Gorriti

Erralde Hiltegiako arduradunek jakitera emon dabenez, 2007an Bizkaiko Foru Aldundian landa inguruak garatzen laguntzeko dekreturako proiektu bi aurkeztu zituen: eskualdeko hiltegiaren konponketa, eta marketing eta publizitate plana. Proiektuak baloratzeke batzordeak 15.633,28 eta 20.000 euroko diru-laguntzak onartu zituela dino Erraldekoe, batzar horretan sinatutako akta gogora ekarriz.

Jakin eragin dabenez, igazko apirilean Nekazaritza Saileko Diputatu Irene Pardori egoera argitzeko eskutitz bat bialdu eutsien, baina ez dabe bere erantzunik jaso.

"Euskal abeltzantzari funtsezko tresna eskaintzeaz harro gagoz. Kalitateko sektore bat bermatzeko giltzarria gara", azaldu dabe Erraldek arduradunek egoera salatzeke emondako prentsaurrekoan. ■ J.G.

## ■ kolaborazioa



Jabier Meruelo  
CNT sindikatua

## Hauteskunde antzerkia

Hiritar maitea, Euskal Herriko gaur egungo egoerari aurre egiteko denok eskutik joan behar dugu, krisialdiak ziklikoak direla esan dute ekonomista jakintsuenek. Zer gizarte mota da hau? Hurakan bat datorrenean bezala ezkutatuta egon behar dugu arriskua igaro arte? Baina zuk Patxik, eta zuk ere, Juan Josek, zuek badakizue fenomeno naturalak naturak probokatzen dituela, baina, gizarte mailan krisi ekonomiko bat, logikaz, sistema ekonomikoaren ondorioa dela, noski. Eta nortzuk mantentzen dute sistema bedekatu hau? Ez al dira/zarete politikoak? Hau ez da kasualitatea. Egoera hau onartu behar dugu Bibliako madarikazio bat bezala?

Eduardo Galianok ipuin hau kontatu zuen: Jatetxe batean asanblada bat egin zuten, eta han sukaldariak galdetu zien animalia guztiei ea zer saltsatan nahi zuten prestatuak izan. Orduan, oilo batek esan zuen, berak ez zuela nahi prestatuta izatea. Sukaldariak erantzun zion, barrezka, hori eztabaidatik kanpo zegoela: zer saltsatan prestatuak izan nahi zuten bakarrik aukeratu ahal zutelak.

Fabula horrek paralelismo handia dauka gizarte honetan gertatzen denarekin. Gu, hiritar demokratiko eta baketsuak, lau urtean behin joaten gara automatik bezala bozkatzera. Galeanoren sukaldariaren hitzak aldatuko ditugu galdera honengatik: zer jabe esploataua izan nahi duzu? Hori da zure aukera hauteskunde "demokratiko" hauetan. Estatu Jainkoak edo Eusko Jaularitzak mirari baten bidez gauzak konponduko dituela itxaroten badugu, oker gaude. Langileak elkartzen bagara bakarrik lortu dezakegu benetako demokrazia; hau da, gure arazoak konpontze bitartekaririk gabe. Artzainek ardiak zaintzen dituzte. Lehendakari berria izango denak kontuan izan dezala gu ez garela ardiak.

"Hiritar demokratikoak lau urtean behin joaten gara, automatik bezala, bozkatzera"

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz

**EXCAVACIONES JON**

MOTA GUZTITARQUINDUSKETAK  
HONDAKINBUZUELA

Jon Garitagoitia Gallastegui

PAGUEBARRIA, 100 • 48960 • 48960 MALLAIA  
TEL: 943 17 20 24 • FAX: 943 17 20 24



# KULTURA>



Judit Fernandez

MUSIKA> KONTZERTUAK

## Londres eta Stockholmera bidean, Herman Dune

**H**erman Dune taldearen kontzertua izan zen anaia bi eta bateria-jotzailea Plateruenera ekarri zituena, 2007an ekarri zituen leku berera bueltatu ziren zapatuan. Iazko udazkenean kaleratu zuten *Next year in Zion* diskoa aurkeztu zuten oraingo honetan Durangon.

Londresera bidea hartu du Durangoko emanaldiaren ondoren Herman Dunek, eta Suediako Stockholm-en eta Trondheim-en eta Quebec-eko Montrealen dituzte hurrengo emanaldiak.

Hamarkada batez folk eta *grunge* motako musika uztartuz zazpi disko kaleratu dituen taldea izan zen Plateruenean.

### Rocka gidari hartuta

Martitzen arratsaldeetan Durangon entseguak egiten dituen taldea, Tuesday Evenings taldea da gaur gauean Durangoko Plateruenean aritzeko dena. Power-pop eta rock doinuak lantzen dituzte 2005ean taldean bildu zirenetik, eta rock oinarri sendoagoaz datozela diote 2009 honetan.

Lehenago The Unfinished Simpathy eta MClan bezalako taldeekin jo izan duen Tuesday Eveningsek Kokein eibartarrarekin joko du gaur. Kaleratu duten azken laneko, *Mundu margotu berri bat* diskoko kantak aurkeztuko ditu Kokeinek Durangon, eta ETB3 katean emango dute zuzenean kontzertua. ■ I.E.

### 12 > Lehengo taldeen jaialdia

Berrizko Hiltegiaren 10. urteurrenaren harira, dagoeneko desaginda dauden herriko sei taldek kontzertua eskainiko dute otsailaren 21ean.



### 13 > Jone Irazabal kontalari

Urtero bueltatzen da Elorriora, eskoletako umeei ipuinak kontatzera. Bartzelonan dago orain, antzerki klasikoko obra batean antzezle.

MUSIKA > KONTZERTUAK



Hyssopus taldea, orain urte batzuk Berrizko Gaztetxeko taula gainean egindako argazkian. Iban Gorriti

## Sei musika talderen berpiztea: Berriz Old School Band Fest

Hiltegixe gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko antolatu dute kontzertua

Biesku, hamar urtelema duen egitarau zabala antolatu dute Berrizko Hiltegixe gaztetxean otsailean zehar. Joan zen asteburuan, otsailaren 13an, bete ziren 10 urte hiltegi izandakoa Berrizko gazteek okupatu eta euren proiektuak aurrera eraman ahal izateko espazioa bilakatu zutenetik. Iragan asteburuan bazkaria, bakarrizketak eta kontzertuak izan ziren urteurrena ospatzeko.

Zapatu honetan, berriz, dagoeneko deseginda dauden taldeen zuzenekoak izango dira gaztetxean: Berrizko Nabari, At!, Fast Ladrillo, LDF eta Hyssopus taldeen emanaldiak, eta orain gutxiago sortutako Manhattan taldeek joko dute otsailaren 21ean, 21:30ean, Hiltegiako jaialdian.

Bihar kontzertua duten lekuan bertan, Hiltegiaren, biltzen hasi ziren berriztar gazte haien proiektuetako zenbait musikaren ingurukoak baitziren.

Nabari, At!, Fast Ladrillo, LDF, Hyssopus eta Manhattan taldeek joko dute jaialdian

Hiltegixe gaztetxean topatu zituzten askok taldekideak, eta entseguak egiteko lokalak ere bai, besteak beste. Gaztetxearen inguruan sortu ziren duela hamarkadabat inguru askotariko doinu eta eritimoak jorratzen zituzten musi-

ka taldeak, eta orain bost-sei urte ingurura arte iraun zuten taldeotariko batzuek, zuzenekoak eskainiz eta diskoa kaleratuz.

### Sakabanatutakoa lotzen

Hasieran, azaldu digutenez, gaztetxearen urteurrenaren harira antolatutako ekitaldien arteko haur pentsatzerakoan, Hiltegixe gaztetxea bilgune eta entsegu-gune izan duten talde guztiak batzea zuten helburu. Baina, dozenatik gora talde egun edo gau batean kontzertuan biltzea gehiegizkoa zela ikusi zuten gaztetxeok.

Arrazoi horixe izan zen dagoeneko jotzen ez duten taldeen kontzertua antolatzea eraman dituen, diotenez: sei taldeko zerrenda atontzera eraman dituen.

Hasierako zerrendan Eta Zer! taldea ere agertzen zen Berriz Old School Band Festeko taldeen artean, baina agenda arazoak medio, esandako seiak arituko dira gaurko kontzertuan: Nabari, At!, Fast Ladrillo, LDF, Hyssopus, eta Manhattan Berrizko taldeak.

Agenda arazoak medio, azkenean Eta Zer! taldeak ez du joko

Hamargarren urteurrenako antolatutako kontzertu berezi honen aitzakian seirotariko baten batek berriro taldea berreskuratu eta martxan jartzea oso pozgarri litzateke, nahiz eta Berrizko gaztetxeko musika mugimendua 10. urtebetzean ere oso bizirik dagoen: iragan asteburuan gaztetxean kontzertua eskaini zuen Xarma bertan sortutakoa da, baita duela gutxi sortutako Tomakawa edo Tres41 musika taldeak ere. ■ I.E.

## GEURE DURANGALDEA



Fermin Barcelo Irakaslea

## Duela 200 urte, Yurreta

Duela 200 urteko kontuak hona ekartzeko, Iturriza hartu izan dugu iturritzat. Iurretari buruz ("iru-ureta" -tik datorrela izen hori esaten du berak) dio: "...con mucho Montazgo y jarales, Castañales, pastos para ganado, Manzanales, y Cerezos, y vecindario de 78 fogueras esparcido en la falda Meridional de la Sierra de Oiz, en las tres barriadas de Vribe, Orobio y Goicouria, para cuio gobierno politico hai vn fiel con el Asiento y voto quinto en Juntas de Guerediaga."

Durango ondoan ("a 680 pasos regulares de Durango", idazten du), eta Gerediagako Batzarretan 5. eserlekua duen Iurreta ez da nolanahiko herria. Horiaz pimaratu guran: "Haien la feligresia de San Miguel 82 Casas, 450 personas de Comunion, cinco ferrerías, dos de ellas Sarteneras, quatro Molinos, quatro tabernas, Carnecería, tejería, Escuela de primeras letras, y nueve hermitas". Ondoren, jakina, 9 baselizen izenak, Amatzako San Martinetik hasi eta "N. Señora de Goicouria" -raino.

Elizaren inguruan hainbat datu (neurriak, hornikuntza, egindako obrak, etab). Eta azkeneko lerroaldean, Iturritzaren gan ohikoa denez, leinu zaharreko etxeak eta haietatik sortutako hainbat gizon ospetsu aipatzen ditu: "Vribe Salazar, Gaztañazatorre, Amaza, Madariagazar, Guardia, Orobio el mayor, Garaizaar, Baquijano, Orozqueta, Arandia, y la de Yurreta fundada por Pascual de Yurreta, Criado y privado que fue del Rey D.n Alonso el Magno, el año de 899 según escribe Maguncio Pinelo". Eta gizon ospetsuen artean: Don Pedro Manuel de Arandia militarra, eta Frai Pedro de Madariaga frailea.

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

OTSAILAK 20 22:00etan  
**KOKEIN +**  
TUESDAY EVENINGS  
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

OTSAILAK 21 22:30ean  
**DAMBA**  
EH, Cuba, Venezuela, France  
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

OTSAILAK 22 19:30ean  
**URAREN MUSUA**  
ATIKUS Antzerki Taldea  
UMEENTZAKO ANTZERKIA. Sarrera: 4 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**Txalo Produzkoak (Donostia)**

**AHUNTZA, NOR DEN SYLVIA?**

Otsailak 22  
igandea 19:00etan

San Agustin  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGOKO UDALA

Liburubenda

71-94 601 07 76

Artekale, 14 Durango

**HITZ**



ANTZERKIA > ELKARRIZKETA

# “Preparazino oso berezia eskatzen dabe antzerki obra klasikoek”

Bizimodua antzerkiaren inguruan bizi du orain 20 urtetik **Ione Irazabal** elorriarrak. Geroa taldearekin ere kolaboratu zuen lehenago, eta Madril, Londres eta New Yorken egin ditu antzerkigintza ikasketak.

*Antzezlan barria oholtzaratu dozue eguazten honetan Bartzelonan...*

Bai, ni aktorea naiz lanbidez, eta alde batetik bestera ibili behar izaten dot, lan kontuak direla-eta. Orain lau urtetik Compañía Nacional de Teatro Clásico taldean egiten dot lan, eta Bartzelonan gagoz orain.

*Zer obra zabilzie antzezten?*

Orain urte bete estreinatu genduen Calderón de la Barcaren *Las manos blancas no ofenden* lana da Bartzelonako Apolo antzokira dakarguna. Eguazteenan izan da estreinaldia, eta hori prestatzen buru-belarri gabilz orain. Antzerki klasikoa ikusteko aukera askorik ez da izaten Katalunian, eta oso harre-  
ra ona izaten dau.

“Orain urtebete

estreinatutako Calderon de la Barca-ren lanagaz gabilz”

*Aurretik beste hiriburu batzuetan aurkeztu dozue obra?*

Obra honegaz Madrilan izan ginen lehenengo, hiru hilabetez, eta Bartzelonan egon ondoren Logroñora joango gara; bertan emongo dogu amaitutzat bira. Bitartean, Tirso de Molinaren beste obra bategaz izan gara Argentinan, Uruguain eta Valentzian.

*Bidaian bizi zarela esan leiteke, orduan...*

Bai. Baina bizi, Madrilan bizi naz. Nahiz eta aldiro-aldiro lanak beste hiriburu batzuetara eroaten nauen. Aste honetan, Bartzelonara etorri eta entseguak egiten pasatu dogu astea. Zapatuan, esate baterako, arratsaldeko laueta antzokira sartu, eta hamabidetan atera ginen: antzerki klasikoan abestu be egiten dogunez, preparazino berezia behar izaten da ahotsa berotzeko be, jantziak eta makillajea prestatzen be denpora asko behar izaten dogu...

*Elorrio eta Euskal Herritik kanpora egin izan dozu zure ibilbide profesionala...*

Madrilera joan nintzen lehenengo antzerki ikasketak egitera, eta Londres eta New Yorkeko eskoletan be egon izan naz.

*Eta ipuin kontalaritza?*

Oso aberasgarria da umeekin halako hartu-emon zuzena izatea, artisauen lanagaz konparatu leiteke. Antzerki klasikoa, aldiz, beste kontu bat da: eszenografia, argia, musika eta jantziak baliatzen dira.

*Elorriora, ipuinak kontatzera bueltatzen zara urtean behin.*

Azken 10 urteetan etorri izan naz Elorrioko eskoletako umeendako ipuin kontalaritza saioak egitera. Urtean behin etortzen naz. Izan be, asko interesatzen jaten esparrua da ipuin kontalaritza. Haurrendako sorturako literatura be oso interesgarria iruditzen jat. Umeendako oso gauza onak dagoz idatzita.

*Antzerkia eta ipuin kontalaritza oso lotuta dagoz, ezta?*

Bai, zalantza barik. Nire lanbidea antzeztea da, eta ipuin kontalaritzan baliagarri izaten dira antzerkiko teknikak. Ipuinak kontatzerakoan be, ahotsa eta gorputz adierazpena dira baliabide garrantzizkoenak.

*Eguneroko lanean gazteleraz jardunda, ipuin kontalari saioak euskaraz lan egiteko aukera dira zuretzat?*

Bai, halan da; euskara nire hizkuntza da, eta oso maite dot euskaraz lan egitea. Antzerki klasikoan, hizkuntzak lantzen zabilz beti: sakondu egiten da asko hizkuntza bat. Izan antzerkian edo izan ipuin kontalaritzan, beti nabil berbeekin hartu-emonen.

“Hizkuntzak landu eta sakontzen ibiltzen zara beti antzerki klasikoa egiten zabilzenean”



*Eta zelan lortzen dozu umeak zuk kontatzen dozuna entzuten adi-adi egotea?*

Euren munduan sartzea da gakoa: euren imajinazioaren jokoak zelan funtzionatzen dauen ulertzen saiatzea. Zu zintzoa bazara eta benetan gogoko dozun istorioa kontatzen bazabilz, eurek be harrapatu egiten dozuz istorioagaz, eta holan lortzen dozu komunikazioa izatea.

*Istori bat zelakoa izan behar da jentea harrapatzeko?*

Nik asko irakurtzen dot umeendako literatura, intuizinoz egiten dot hautaketa. Zenbat eta gehiago irakurri, aukera gehiago dago gauza desbardinak kontatu eta zeure burua be aberas-teko. Istoriok funtzionatzen dauen ala ez, oso argi ikusten da umeen aurrean.

*Antzerkian obra klasikoak lantzen dozuz. Umeendako aproposak dira ipuin klasikoak?*

Literatura garaikidea eta klasikoa lantzen ditut. Liburutegira asko joaten naz, oso gogoko dodalako istorioen bila aritzea. Ipuin batean, “bazen behin” esan eta mundu berezi batean

“Urtean behin ipuin kontalaritza saioak egiten ditut Elorrioko eskoletako umeendako”

barneratzen zara. Hori da polita; ipunagaz bakarrik edozein lekura egin zeinke hegan.

*Zer da garrantzizkoena ipuin kontalari ona izateko?*

Antzerkian egiten denean moduan, ipuinak kontatzerakoan be oso inportanteak dira ahotsa eta erritmoa.

*Helduei zuzenduriko gero eta saio gehiago izaten dira: Durangaldean antolatzen ditueen munduko kontalarien saioak, esaterako.*

Nik uste dot gero eta gehiago behar doguzela halako ekin-tzak: ahozko tradizioa eta kontaktu era hori bizirik mantentzea. Isolatuta bizi gara, eta jentegaz hartu-emon izateko modua da. Momentu batean estimuluz betetako bizimodua gelditzea eta entzuten ikastea oso inportantea da.

*Entzule izateaz gainera, ipuin kontalari saioetan parte be hartzen dabe umeek...*

Umeak laster hasten dira mugitzen, eta, gainera, oso sensibileak dira soinuekin, onomatopeiekin. Horrekin jokatzeko aukera eskaintzen dabe beti. Asko gustatzen jake, eta neuri be bai eurekin jolas hori izatea.

*Urtarrilean Durangoko San Agustinen Geroa antzerki taldearen omenaldia izan da. Zu be Geroan ibili zinen, ezta?*

Jakinarazi eusten Geroan ibilitako guztien afaria egingo ebe-la, eta penatuta geratu naz ezin izan dodalako joan. Zuzendari-laguntzaile izan nintzen Geroa eta La Jacara-ren elkarlanaren emaitza zen *Por mis muertos* izenekoa. Oso lan interesgarria izan zen Geroa antzerki taldeak egin ebana. ■ I.E.

“Istoriok funtzionatzen dauen ala ez, oso argi ikusten da umei ipuinak kontatzean”

ARTEA > ERAKUSKETA

Orain hamarkada batzuetako obra grafikoaren ispilu izan daitezkeen 27 serigrafia lanen bildumak osatzen duen erakusketa da *Fin de siglo* izenekoa: otsailean zehar Durangoko Arte eta Historia Museoaren lehenengo solairuko aretoaren hormetan ikusgai izango dena. Alacant-eko De Buena Tinta argitaletxeak hainbat artistarekin elkarlanean egindako lanak daude erakusketan.

De Buena Tinta argitaletxeak eta XX. mendeko artista ospetsuek landuak

Formatu txikiko 27 koadro bildu dituzte, eta askotariko jorera artistikoen adierazpenak diren lanak dira *Fin de siglo* erakusketakoak: artelan abstraktuak, figuratiboak, espresionistak eta kontzeptualak. Guztiak serigrafiako teknikaren bitartez eta Altea De Buena Tinta argitaletxean artista ospetsuenekin elkarlanean landutakoak. Artisten lanaren originaltasuna defendatzeko, eta artista garaikideen lanaren difusiorako 1976tik egindako lanaren lagina da Museoan dagoena.

# Serigrafiatutako artelanak: 'Fin de siglo'

Otsailerako Durangoko Arte eta Historia Museoaren proposamena da 27 artelan biltzen dituen

Batez ere, XX. mendeko 30eko eta 40ko hamarkadetan sortutako artelanak zabaltzeko tailerlean egindako serigrafia lanak dira bildu dituztenak: Espainiako artista ospetsuek egindakoak. Feito, Dis Berlin, Gordillo, Saura, Eva Lootz, eta Agustin Ibarrolaren lanen erreproduzioak daude, esaterako.

**Artearen zabalkunderako**  
Artisten sorkuntzak originalak bai baina bakarrak edo "esklusiboak" izan ez daitezkeen obra bat erreproduzitzeko baliatzen den teknike-tako bat da serigrafia. Erakusketan batutakoak bezalako lanak egiten dituen De Buena Tinta argitaletxean azpimarratzen dutenez, "arte demokratizatzeko" modu bat da serigrafiaren bitartez serieko obrak sortzea. ■ I.E.

Formatu txikiko 27 koadro daude 'Fin de siglo' erakusketan



ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA

# "Beroa" berbak iradokitakoari jarraituta hartutako argazkien erakusketa Iturri

Eguen honetatik martxoaren 5a bitartean izango dira Iturri kultur etxean ikusgai Elorrioko Argazki Taldeak erakusketan bildutako 50 argazki inguru. Herriko argazkizaleen lanaren isla ikusgai, beraz.



Urteroko ohituran antolatu du Elorrioko Argazki Taldeak taldeki-deek egindako argazkien erakusketa, baina, berezitasun batekin aurten: "beroa" kontzeptua eman diete aurten gai bezala, eta berba horrek iradokitakoan oinarrituta egin dituzte erakusketarako bildutako argazkiak.

Beste urte batzuetan erakutsi dituzten bidaietan egindako argazkiak baino zentzu abstraktuagoa eta kontzeptualagoa duen gaiaren inguruan jardun dute, beraz, otsail erdialdetik martxoaren 5a arte euren herrian erakutsiko dituzten argazkiak egiten Elorrioko Argazki Taldekoek.

Eguenero, 19:30etik 21:00ak bitartean batzen dira elkarteko kideak euren lokalean

Argazki zaleen elkarteko bazkide bakoitzak "beroa" gaia aintzat hartuta egindako argazkiak bildu dituzte martxoa arte izango den erakusketan, eta askotariko irudiak, berezi-bereziak, batu dituzte Iturri kultur etxeko erakusketa aretoan. Argazkilari bakoitzak argazki bat edo bi utzi ditu argaz-

kilari elkarteak antolaturiko erakusketa honetarako. Gaia ezagututa egindakoak izan dira argazkietako batzuk, eta argazkilari euren artxiboan gordeak dituztenetatik "beroa" berba edo sententzia islatzeko apropos ikusitakoak dira beste zenbait.

**Zale guztiei zabalik**

Erakusketa martxoa arte kultur etxean ikusgai izango dute Elorrioko eta Durangaldeko argazkizale guztiek, baina, baita erakusketa antolatu duen elkarte bera ere.

Eguenero, 19:30etik 21:00ak bitartean Iturri kultur etxean duten lokalean biltzen dira elkarteko bazkideak, argazkigintzaren inguruan sortzen diren askotariko gai buruz berba egiteko, esperientziak konpartitzeko edo irteera eta tailerrak antolatzeko; arkitekturari buruzko argazkiak egiteko Bilborako irteera, txoriei argazkiak egiteko joatekoa edo mugimenduan dabilzan elementuei argazkiak egiteko teknikak lantzeko espreski antolatutako txangoak adibidez. ■ I.E.

Ohikoa baino gai zabal eta abstraktuagoa jorratu dute aurten

MARGOGINTZA >

# Margo eskolako erakusketa

Kurutziaga Margo eskolan aritzen diren 10 eta 17 urte bitarteko umeek egindako lanen bilduma dago ikusgai Durangoko Jai Berri tabernan. Martxoaren 6a arte izango dira tabernara gerturatzeko direnen begibistan.

Kurutziaga kaleko eskolan ikasitako teknika ugariak landuta sortutako lanak dira erakusketan ipini dituztenak.

10 eta 17 urteko ikasleek egindako lanen erakusketa

Kurutziagako eskolan ikasi eta landutako teknikak oinarri

Marrasketa eta pintura lantzeko Kurutziagako eskolan ikasitako teknika askotarikoetatik abiatuz sortutako 23 koadro ikusgai, beraz, Kurutziaga kalean dagoen Jai Berri tabernan.

Eskolako ikasle txikienek bost urte betetzen dituztenetik zehar helduek daukate eskola honetan izena eman eta parte hartzeko aukera; goizeko eta arratsaldeko txandetan aritzeko aukera izango dute. ■ I.E.



# anboto astekariak Eusko Labelarekin batera **saski bat** zozketatuko dau hilerro



Goi-mailako  
elikagaiak  
Alimentos de  
calidad superior



## zozketa

Arabako babarrun kilo 1, "Ibarrako Piparrak" pote 1, Ezti pote 1, Idiazabal gazta erdi, "Bizkaiko Txakolina" botila 1, "Arabar Errioxako Ardoa" botila 1, Arabar Errioxako olio birjin botila 1, Txakolin-bonboi kutxa 1 eta 30 €-ko txartel 1 Euskal Okelagatik, Euskal Esne Bildotsagatik edo Euskal Baserriko Oilaskoagatik trukatzeko.

**Zenbat eta gehiago bialdu  
orduan eta aukera gehiago**

Bidali edozein Label produkturen etiketa, Anboto astekarian argitaratzen den Label txartelagaz batera (31. orrialdean hamabostero), hurrengo helbidera:

Erref.: "Eusko Label Saskia"

Anboto Astekaria • Santana, 6 • 48200 Durango



# Santa Susana komentua, historia luze baten etenaldian



I. Gorriti

Durangoko Santa Susana komentuak mojen belaunaldi ugari jaso ditu mendeetan zehar, baina bokazino faltaren ondorioz atearak itxiko ditu laster. Bertan egondako klausurako azken mojak maletak prestatu eta beste monastegi batzuetarako bidea hartzen dabilz egunotan.

Otsailaren 10ean egin eutseen omenaldia Santa Susanako azken lekaimerei

Lau mendetako historia itzi dau atzean Santa Susanako komentuak. Mojen otoitz, laguntza, lan eta hausnarketak komentuen zein ikastetxearen eta, zelan ez, Durangoren historian geratuko dira. Bertan geratzen ziren lekaimen agustindarrak badoaz; euren beharragaz jarraituko dabe, baina beste lekuren batean. Euren kabi izan den eraikinagaz zer gertatuko den argitzeke dago oraindino.

Joan zen astean, otsailaren 10ean, egin eutseen omenaldia Santa Susanako azken lekaimerei. Zazpi serora egon dira azken boladan bertan, eta egun honeetan denak dabilz gitxinaka alde egingen. Oraintxe bertan hiru dagoz komentuan, baina horreek be azken orduko prestaketakegin eta

etapa barri bati ekiteko lanetan.

Moja gitxi egon dira, beraz, Santa Susanan. Horri gaur egungo bokazino falta gehitu behar jako, eta ondorioa badakigu zein den: komentuen itxiera. Gainera, agustindarren arduradunek bertako lekaimenen hobe beharrez hartu dabe erabaki hori; euren ustez, beste komentu batzuetan babestuago eta erosoago egongo dira, moja gehiagogaz batera.

Durangoko Komentu kalean dago kokatuta Santa Susana. Kalearen izenak dinon moduan, ez da bertako lekaimen-erakarrak, baina gaur egungo egoera ez da gozoena inongo ordena erlijiosorentzako. Aurretik, karitatearen alabena eta salesen ordenak joan ziren herritik, eta orain hiru komentu geratzen dira

herrian: San Frantziskoko klari-sena, karmelita oinutsena eta Intxaurrondoko mirabeena.

## Lan isileko historia

Vicente Zavala jesuitaren idazkien arabera, Abadiñoko emakume bi izan ziren agustindarren arropa jantzi eben lehenak Santa Susanako monastegian; 1593. urtean, hain zuzen be. Handik aurrera, isilean egindako lan askoren egoitza izan da agustindarren etxea. Otoitz egin ez eze, herriko guraso askoren eskaerei erantzun eta ikastetxea sortu eben, bertako hezitzaile izanik. 1927an egin zen ofizial Santa Rita ikastetxea.

Lau mendek askorako emoten dabe, eta hainbat izan dira Santa Susanatik igarotako mojak.

Italiar faxisten bonbek 14 serora hil zitueen; kolpe latza izan zen

Komentuen garai osasuntsuetan 30 bat izan ziren teilatupe berean bizitzen.

Ibilbideluzehorretan, baina, guztia ez da onerako izan. Komentuan izandako gertakari larriena bonbardaketa izan zen; agustindarren monastegiak be pairatu eban Durangoren kontrako eraso. Italiar faxisten bonbek 14 serora hil zitueen, eta 9k zauri larriak izan zitueen. 6 moja bakarrik irten ziren guztiz onik. Kolpe latza izan zen hori agustindarentzako.

## Erligioa eta heziketa

Aurretiaz aipatu dogunez, Santa Rita ikastetxea jaio zen Santa Susanako mojen eskutik. Erligioan oinarritutako heziketaren bitartez, hainbat eta hainbat gazteri eskaini deusiez euren irakaspenak; durangar askoren oroimenean egongo dira eurgaz txikitako bizitako momentuak. Urteetan zehar, estu lotuta egon ziren komentua eta ikastetxea; bat eginda, hain zuzen be. Baina egoera hori aldatzen joan zen denporaren poderioz, eta 90eko hamarkadan sakoneko



eraldaketa gertatu zen Santa Ritaren egituraketan.

Hezitzaile profesionalak integratzen hasi ziren irakasle taldean, mojekin batera. Aldi berean, bokazino faltaren eraginez, lekai-me gazte gitxi zegoen eta bertan zegoenak urteetan aurrera zihoazen. Faktore horreen guztien ondorioz, aldaketa garrantzitsua emon zen funtzionamenduan: komentua eta ikastetxea banandu egin ziren.

Santa Susanako egoera bera San Antonion be gertatu zen, eta ordura arte lankidetzan oinarritzen bazen euren arteko hartu-emona, orain dela hamabi urte bat egitea erabaki eben ikastetxeek, bien egoerari aurre egin asmoz. Momentu horretan, San Antonioko klarisak geratu ziren San Antonio-Santa Rita ikastetxearen jabetzagaz; dena dela, handik gitxira bi ordena erlijiosoek ikastetxeak iztea gura ebesta agertu eben. Egoera barri

**90eko hamarkadan sakoneko aldaketa gertatu zen: komentua eta ikastetxea banandu egin ziren**

## “Orain arteko lan berberagaz jarraituko dogu”

Genoveva Uriarte bermeotarra da jaiotzez, baina Durangoko Santa Susana monastegian egon da 61 urtez, klausuran. Beste komentu batera joateko azken prestaketak egiten harrapatu dogu, eta hemengo bizimoduaz jardun dogu berbetan.



Lanpetuta dabilz egunotan Santa Susana komentuan geratzen diren lekaimeak. Hainbeste urte bertan igaro ondoren, leku aldaketa egin beharko dabe, eta horrek hainbat buruhauste be bada- kar, normala denez. Zazpi moja egon dira bertan azken boladan, eta lau alde eginda zegoen gu bertara joan garenako. Beste hirurek be datozen egunotan egingo dabe hegan; horreetako batek hartu gaitu mintzalekuan, Genoveva ahizpak.

1948an sartu zen Genoveva Uriarte Durangoko agustin- darren etxean. Santa Rita ikastetxeko irakaslea izan zen urte luzez; orain dela 15 bat urte arte, hain zuzen be. Oraindino be gogoan dauka hezitzaile sasoi- a: “klase partikularrak, kontabilitatea eta takigrafia emon nituen, adibidez, lehen hezkuntzaz aparte”.

Irakaskuntza ez da izan, ordea, serora agustindarrek eduki daben lan edo ardura bakarra. Genovevak argitu deuskunez, “ortu handia dogu

monastegian, eta batzuk bertan ibili izan dira lanean”. Baina edadean aurrera eginda-koak direnez guztiak, azkenaldian ortuan ez direla ibili azaldu deusku umoretsu.

Lau mendeko historia izanda, monastegiak “balio historiko handia” daukala esan deusku Genovevak, eta garrantzia eta misterioa be bai. Klausurako mojak izan dira agustindar- rarak, eta jendartean egon diren aldaketa batzuk nabaritu izan ditue.

### Despedida

Otsailaren 10ean despedida-ko meza eta omenaldia izan eben Santa Susanan, eta “jenteak asko maite gaituela ikusi zen”, dino Genovevak. Bere esanetan, “pena handia hartu eben denek”.

Bilbora, Oretetara, Errioxa- ra... Hainbat lekutara doaz Genoveva eta bere kideak, baina “lan berberagaz” jarraituko dabela esan deusku. “Beste jente bategaz, beharbada, baina elkartzeko pozarren”.

**Ardura zentroko irakasleek hartu eta gaur egungo proiektua abiatu eben: kooperatiba bihurtu zen 1999an**

horren aurrean, zentroko irakasleek hartu eben ardura eta hor abiatu zen gaur egungo ikastetxearen proiektua: kooperatiba bihurtu zen 1999an.

Beraz, guztiz banandu ziren Santa Susanako komentua eta ikastetxe barria; hori bai, ikastetxearen filosofia edo izaeran Santa Susanako moja hezitzaileek ezarritako irizpide erlijioso mantentzen da.

### Elkarteen babesleku

Lan erlijiosoagaz batera, ikastetxearen sorrera eta bertan makina bat durangarrekin garrantzirik heziketa izan leiteke Santa Susanako lekaimeek Durangon egin daben ekarpen nagusia. Halan be, euren lana ez da horretan geratu. Esate baterako, arropen bilketarako gune izan da, Caritas Tabira elkartearen Ekorroparako. Arropa batzen eban kamioia etorri bitartean, guztia han gorde eta isilpeko laguntza emoten eben.

Badoaz Santa Susanako mojak Durangotik; eurekin komentuaren historiaren parte bat be bai. Ondo jarraitu daiela aro barrian. ■ Markel Onaindia

## “Mojek jarritako sustraia mantentzen da ikastetxean”



Alex Zabaleta da San Antonio-Santa Rita ikastetxeko zuzendaria. 37 urteko durangar hau ikastetxearen erabarritze sasoiari sartu zen irakasle taldean.

*Aldaketa emon zen zuen ikastetxean 90eko hamarkada bukaeran. Kontatu eiguzuz zehaztasunak.*

Irakasleen kooperatiba sortu genduen 1999an, mojek ikastetxea iztea gura ebelako. Zentroaren titularitate geuk hartu genduen, baina erai-kinak eurenak ziren oraindino, eta horrek baldintzatu egiten gintuen. Horregaitik, 2002an alokatu egin genduzen agustindarren eta klarisen erai-kinak. Klarisenean Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dogu, eta agustindarrenean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

*Beraz, bi aldeen arteko loturak desgertu egin dira?*

Bai. Mojek ez daukie ikastetxean eraginik, eta alderantziz be bardin. Ezin dogu ahaztu, gainera, bi ordenatako serorak klausurakoak direla. 2005a arte klarisetako moja bat egon zen klaseak emoten; baina bestela, irakasle ez erlijiosoak gagoz bakarrik. Oso gitxitan etortzen dira ikastetxera, Santa Rita egunean eta halakoetan bakarrik.

*Zelan ikusten da ikastetxearen partetik mojek urte honeetan guztietan egin daben lana?*

Ezin geinke ahaztu ikastetxea euren dela, eurek sortu ebela. Horregaitik, eurekin konpromisoa daukagu: instalazinoak alokatzerakoan, ikastetxearen identitatea kristaua izango dela ipini eben baldintza lez. Eurak

egon ez arren eurek jarritako sustraia mantentzen da. Gure hezkuntza bi zutabetan oinarrituta dago: esparru kristaua eta euskalduna, lana bi- tarrera moldatuz.

*Aro barri batean zagoze, beraz.*

Bai, lehenago langile soilak ginen irakasleak, eta 1999az geroztik gure enpresaren jabeak gara. Hasieran gatxa egin jakun, baina orain oso ondo gabilz. Bide beretik jarraituko dogu.

*Eta hemendik aurrera, igarriko ete dozue mojen falta?*

Batez be, maila pertsonalean. Izan be, eurek dagoeneko egunerokotasunean ez daukie eragin berezirik ikastetxean, eta ikastetxeak ez dau falta igarriko funtzionamenduan. Baina hemengo jente askok hartu-emon oso estua izan dau eurekin, eskolak hartzen edo eurekin batera emoten. Maila pertsonalean asko nabariturako dogu euren falta.

**“Instalazinoak alokatzerakoan, ikastetxearen identitatea kristaua izango dela ipini eben baldintza lez”**

ERITZIA<sup>></sup>

kolaborazioa

## Gutunak

## Erralde hiltegiak bi urte

Egun hauetan bi urte betetzen dira Erralde hiltegia ireki zenetik. Bi urte pauso pauso abeltzaintza politika bat definitzeko, elkarlan bat berreskuratzeko eta, azken finean, pertsona multzo batek nekazaritza politika bat aurrera eramateko.

Ibilbidearen lehen urtean Erralde posible zela frogatu genuela esango nuke, eta bigarren urte honetan Erralde beharrezkoa zela frogatzea egokitu zaigu. Hiltegia ireki zenetik ez gara geldirik egon. Ideia asko genituen eta abstrakzioan definituta geneuzkan kontzeptuak eguneratu eta praktikan ipini behar genituen. Horretarako, derrigorrezkoa zen hiltegiaren norabidea finkatzea.

Helburutzat, Erralde hiltegia sektorearen esku egon dadin hiltegia izatea eduki dugu; baita euskal harakinen esku egon dadin hiltegia izatea ere gura izan dugu, beraiek baitira neurri handi batean bertoko okela saltzen dutenak; eta Erralde hiltegia bertoko produktuekin dabilzan sukaldarien hiltegia izatea ere gura izan dugu. Hori guztiori eginez "elikadura subiranotasuna" aurrera eramatea eta zabaltzea posible delakoan gaudelako. Halakoetarako, jakina, garrantzitsua da itsasontziko kapitainak lema hartu eta norabidea jartzea. Alabaina, itsasontzia uretaratu eta baserriaren esku dagoela adierazi, baina lema "merkatuaren" esku uztea alferrikako lana dela esango nuke eta kaltea eragiten duena. Hori, baserriaren dirua eta diru publikoa merkatu horren zerbitzura eta bere agindupean ipintzea izango litzateke, ez sektorearen zerbitzura. Eta hori iruzur egitea da.

Gure itsasontziak, Erralde, hasieratik oztopoak eduki ditu. Eta nork jarri dizkio, bada, oztopoak? Bada, politika egiteko ipinita dauden pertsonak, alegia. Izan ere, politika egiteagatik izan ditugu oztopoak: gure etiketetan ikurrina erabiltzea zela, euskara hutsezko etiketak zirela, Berrizko Txuletoia, Bizkaiko Bildotsa... ez digute arnasarik hartzen utzi, gu itotzen ahalegindu dira. Baina, zergatik? Ez pentsa ikurrina edo etiketak euskaraz erabiltzearen kontra dauden guri isunak ipini dizkigutenak -edo agian bai-; garbi dagoena da euren arrazoi nagusia, euren "merkatuko" legeak guk ez errespetatu izana izan dela. Baina zer lege ez dugu bete? Nekazaritza politika Europako eta estatuko legediaren gestio hutsa dela uste dutenen begirada zorrotzak eduki ditugu gure gain. Bi urte pasa dira eta dena legearen barruan egin dugula adierazi genezake. Orduan, bada, nork/zerk agintzen du beraien merkatu horretan?

Illuminatu talde bat ginen, txahalak eta behiak ohiko erara hil eta prestatu behar zirela aldarrikatzen genuenean. Burutik eginda geunden. Geu. Beraiek zihardutenean Europar Batasuneko legediaren kontra, nahiz Estatuko legediaren kontra, kasu honetan ere "merkatuak" agintzen baitzuen. Eta haragia ohiko erara hil eta prestatzearen gure ideiak agerian uzten zuen, gauza ilegala "merkatuak" gauza legal bihurtu zuela. Eta ilegaltasun horren aurrean ez zela ezer ere egiten, ez zitzaioela ekiten. Eztabaida hori berreskuratzea posible izan baldin bada neurri handi batean Erralde proiektuagatik izan da. Eta hori da hain zuzen barkatzen ez digutena, merkatuan eskua sartzea.

Azken finean merkatuaren feria honetan legediak ere bete egin behar baitira, jakina, Europatik-Estatutik datozen lege guztiak bete egin behar ditugu. Hala, Espainiako estatua Europar Batasuneko kide denetik inoiz egon ez bada ere Europar Batasuneko ikuskapen bat Euskal Herriko hiltegiaren, Erralde hiltegi zaharrak ikuskapen zorrotz horri ere aurre egin behar izan dio. Nahiz eta Erralde hiltegi berriaren proiektua abian jarrita egon, norbaitek argia emanda Erralde hiltegi zaharrera etorri dira Europa aldeko ikuskapen zorrotzak praktikan ipintzera. Baina Erralde zaharrak Europar Batasuneko eskakizunak ere gainditu egin ditu. Eta ondorioz,

Europar Batasuneko ikuskapen bat pasa duen Euskal Herriko hiltegi bakarra da Erralde hiltegia.

Bizkaiko Bildotsaren adibidea ere hortxe dugu. Bildotsaren prezioa babesteko intentzioz elkartu ginen harakinak, Bizkaiko artzainak, sukaldariak, EHNE sindikatua eta Erralde hiltegia, eta Bizkaiko Bildotsaren Kontseilua sortu genuen. Kalitateko bildots batek prezio duina behar duelako eta hori artzainari ordaindu behar zaiona prezio duinean eginez lortzen delako. Antza denez, batzuentzat hori ezinezkoa zen, merkatuak bere prezioak baititu. Bada, jaun-andreok, posible da. Une honetan Erralde hiltegiak 6,50 ordaintzen du kiloanalean. Eta, alde handiz, inguruan dauzkagun komertzial, marka, eta abar luze batzuek baino askoz gehiago ordaintzen diegu artzainei. Hori bai, trukean artzainei kalitateko goi mailako bildotsa eskatzen diegu. Ezinezkoa zena posible bihurtu dugu; eta horrez gainera Bizkaiko Bildotsa ostalaritzan sartzea lortu dugu. Berrizko Txuletoiarekin jarrai genezake eta antzeko gogoetak egingo genituzke.

Denon artean, Erralde hiltegia bertoko eta kalitatearen erreferentzia bihurtu dugu. Leon, Zamora, Lugoko baserriar, Diputazio probintzial eta albaitaritza Fakultateetatik deitu gaituzte gure proiektua beraie aurkezteko. Proiektuak arrakasta izan du. Hemen ere bai: EAEko abelgorrien % 26-28 Erralden hiltzen dela esan genezake. Eta EAEko baserriarrek egiten duten hiltegiaren erabilpena kontuan izanda, portzentaje hori % 30era igoko litzateke.

Antza denez, hori ez da nahikoa izan, *Sustrai* aldizkarian eta *Sustrai* Euskal Telebistako nekazaritza arloko programa publikoan, Erralderi minutu bat ere eskaintzeko. Erralde molestatu egiten du, ez baitago "kontrolpean". Eta okerragoa eta tristeago dena, guk egiten dugunaren informazioa edo datuak hartu nahi ez dituzten politikariak ere badaude.

Hala bada, egia ezagutu nahi ez duenak arazo bi ditu: bat, norbaitek gezur biribilak esan diezazkiokeela edozein momentutan, eta gezur hori bere axioma bilaka lezakeela iritzi kontrajarriak entzun gabe; eta bigarrena, ez duela politikarako, gogoetarako eta think-erako balio. Ez baitu eztabaidan eta erreflexio-guneetan sinesten. Hor ez dago inongo think-ik, ez dago politikarik.

Herri honen pluraltasuna eta aniztasuna askotan aipatu dira. Baina egia ote da hori? Possible al da horrelako herri bat dagoela adierazteko, herria politikoki sustatzeko dauzkagun alderdi politikoak monolitikoak eta irreflexiboak badira? Ez ote da guztia, armada batean bezala, batzuk agintzera eta beste guztiak agindutakoa betetzera mugatzen?

Erralde hiltegiak, beste eredu batzuek bezala, arrakasta eduki du. Baina arrakasta hori, pertsonen ideiak eta ilusioak interes pertsonalen gainetik ipintzetik dator. Eta nire aldetik esperantza bada goela esango nuke. Gure kasuan, 14 udalek, bere lehendakari politikoa aukeratu eta beste nekazaritza politika bat egitera ausartu ziren. Ideia berri batzuk praktikan jarri nahi zituzten, gehienbat bere izaera politikoan sinesten zutelako. Hau da, ideiak, konpromisoa eta politikotasuna bateratu zituzten Erralde sortzeko.

Beste batzuk, aldiz, Euskal Herriko Laborantza Ganbara babes-ten omen dute, baina aldi berean Erralderi egurra ematen diote. Erraldek bat egiten du Euskal Herriko Laborantza Ganbarekin, bai politikoki, baina baita aldarrikatzen duen nekazaritza ereduarekin ere. Horretantxe ari gara. Nekazaritza politika edukitzeko lehenik eta behin koherentzia edukitzea beharrezkoa baita. Amaitzeko, Erralderen lehendakariak eta udalek bi urte hauetan eduki duten jarrera goraiatu nahi nuke, txalogarri eta erudugarri bihurtu direlako, ez bakarrik nekazaritza politikarentzat, baita euskal politikagintzarako ere, oro har.

Eneko Egibar, Erralde hiltegiako gerentea



Juanito Gallastegi

## Babarik ez, indiarrik be ez

Gose ginen. Baba-jana agindu euskuen. Ala indiar-jana?

Gozoak izaten dira babak edo indiarrik. Guri, behintzat, atsegin jakuz. Gehiago oraindino hain gitxitan jaten doguzen azkenengo urteetako aldi honeetan. Zelako poza, beraz. Baina zer da jan behar doguna, indiarrik ala babak? Ez dira, ba, biak gauza bera?

- Ba, ez! Guk beti babak jan doguz eta kito! Oraingoan be babak jango doguz!

- Ez horixe! Indiarrik esaten da euskeraz gehien egiten den herrietan, eta indiarrik jango doguz!

- Txarto esanda ete dago babak jango doguzela?

- Eta txarto esanda ete dago indiarrik jango doguzela?

- Ba, nik, babak jaten ez badoguz, ez dot jan gura.

- Ba, neuk be ez, indiarrik jaten ez badoguz.

Baina, ez ete da, ba, gauza bera? Ez ete gara gose? Ez ete gagoz pozik janari horregaz gure gosea, egun batez behintzat, asetzeko, eta gero be, behar dogunean jan ahal izateko?

- Ba, ez!

- Ba, ezta!

- Bere alde odola isuritako Euskadi (Euzkadi) izenagaz jokatu dau beti gure selekzio-noak!

- Euskal Herria da euskaldunok beti esan doguna!

Azkenean, ez bata ez bestea. Ez Euskadiko ez Euskal Herriko selekzioa. Jokatu barik geratu behar. Euskal Herriko edo Euskadiko selekzioaren ofizialtasunak atzerapen ikaragarria! Gu guztiok selekzioaren gose-egarri! Noiz arte?

Badakit azterketa inozogia dela egin dodana. Badakit izenak izana adierazoten daue-la be.

Baina ez ete dau oraingoan izenak edo ez ete dabe izenak izana jan, izanar berak izena edo izenak jan beharrean?

Holan jarraitzekotan, bai futboleant bai beste arlo guztietan, gureak egin dau!



Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



**anboto**  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea  
2009ko otsailaren 20a - 8. urtea - 319 zk.

## Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

## Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

## Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

## Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

## Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

## Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

## Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.





euskaraz bizi  
nahi dugunon  
herrira



16. korrika aek  
Tolosa-Bastar 04  
1984-2009 2009ko otsailaren 20a

aek

# izan zaitetz korrika laguntzailea

12 euroren truke,  
garrantzitsuena lortu duzu:

**KORRIKA  
LAGUNTZAILEA** izatea.

Honez gain pina eskuratuko duzu eta,  
eskaintza orria betez gero, txartelak  
ematen dizkizun abantailak ere bai.

www.korrika.org



**anboto**   
komunikabideak

# AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Otsailaren 20an, 22:00etan

## AHUNTZA, NOR DEN SYLVIA?

Ahuntza tragedia bat da. Drama sutsu eta mingarri bat, maitasunaren, zeloen eta idealen muina zuzenean jotzen dauena. Bikote baten bizitza itxuraz perfektua mila zatitan hausten da Martin senarrak Elena emazteari aitortzen deusanean Sylviarekin maiteminduta dagoela; baina, Sylvia ahuntz bat da! Arriola antzokian gaur eta San Agustin kultur gunean domekan dago ikusgai antzeziana.

## ANTZERKIA

### DURANGO

- » **'Ahuntza, nor den Sylvia?' Txalo Produkzioak**, otsailaren 22an, 19:00etan, San Agustin kultur gunean.
- » **'Urenen musua', Atikus antzerki taldea**, otsailaren 22an, 17:30etan, San Agustin kultur gunean.

### ELORRIO

- » **'Ahuntza, nor den Sylvia?' Txalo Produkzioak**, otsailaren 20an, 22:00etan, Arriola antzokian.
- » **'Baserriko saltsa'**, La Baldufa taldea (umeendako antzerkia); otsailaren 24an, 11:00etan, Arriola antzokian.



## BESTEAK

### DURANGO

- » **Baqueirara ski irteera**, martxoaren 13tik 15era. Izena emateko epea martxoaren 9a artekoa da. Berrizburun (179 euro).

### DURANGO

- » **Txiki Parka**, Landako erakustazokako 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Otsaileko eta martxoko asteburuetan egongo da zabalik Udaleko Kultura Sailak antolatuta.



## DANTZA

### DURANGO

- » **Dantza tailerra: 'Dantzaldi ibiltaria' (AIKO taldea)**. Otsailaren 24an, 19:30ean, Plateruena kafe antzokian.

## DEIAK

### DURANGO

- » **Genero biolentziaren kontrako**

**elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

## ERAKUSKETA

### ERMUA

- » **'Eskulturak, grabatuak, collageak' (Baroja Collet)**. Otsailaren 28a arte, Lobiano kultur gunean.

## IKASTAROAK

### DURANGALDEA

- » **'Zure antsietatea kontrolatzen ikasi gura dozu?'**, emakumeendako antsietatea kontrolatzeko ikastaroa. Otsailean hasita. Astean behin izango diren hiru orduko 15 sesino egingo dira, Durangoko Landako osasun zentroan. Eskolak, astelehen edo eguenera izango dira, 16:00etatik 19:00etara (94 620 05 20).

### DURANGO

- » **Adinekoendako ikastaroak: 'Argazkigintza digitala', 'Osasun naturalaren tailerra: landare osasungarriak eta prestakinak', 'Landare eta baratzeak ekologikoki hazteko', 'Aretoko dantzak', 'Lurrinterapia' eta 'Internet'**. Izena emateko, Adinekoen Udal Egoitzan. (94 620 03 21 / 94 603 00 00 Luz. 1710).

## INAUTERIAK

### ATXONDO

- » **Makillaje tailerra**, Markel Pastoren eskutik, Ludotekan, otsailaren 20an 18:00etan (7 urtetik gorra).
- » **Kalejira**, Gaztetxetik irtenda, otsailaren 24an, 17:00etan. Ondoren, erromeria **Lotxo** taldeagaz eta txokolatada Apatako frontoian.

### BERRIZ

- » **Haurreskolaren kalejira**, otsailaren 20an, 10:30ean; **Mozorro kalejira** kalerik kale, 11:00etan; **Learreta Markina** eskolaren ekitaldia eskolako patioan, 12:00etan (euria egiten badau, Berrizburun); **Trena Olakuetatik Elizondora**, 12:30-13:30 / 16:30-19:30; **Xurdir** taldearen kontzertua umeendako frontoian,



17:30ean; txokolatada dastagai Probalekuan, 19:00etan.

- » **Amberria txaranga**, otsailaren 21ean, 17:30ean, Olakueta plazan; **koadrilen topaketa** Elizondo plazan, 18:00etan; **mozorro lehiaketa** Elizondo plazan, 18:30ean; **koadrilen jaitsiera** 19:00etan; **afari herrikoia** frontoian, 21:00etan; **Luhartz** taldearen erromeria frontoian, 22:30ean; **mozorro lehiaketako sari banaketa**, 24:00etan.

### DURANGO

- » **Surrandi eta Hartzaren konpartsa-ekin kalejira**, Kriskitin dantza taldea, Jaizale txistulari elkartea eta Tabira musika banda, otsailaren 21ean, 18:00etan, Merkatu Plazan elkartuta; **kalejiraren bukaera** 20:00etan, Andra Mariko elizpean.



- » **Umeendako parkea**, Landako Gunean, otsailaren 24an, 16:00etatik 20:00etara; txu-txu tren, 16:00etatik 20:00etara, Landako Gunetik irtenda; gazteentzako mozorro jaialdia (diskoteka, karaokea, animazioa eta sarien zozketa) 16:30etik 19:30era San Agustin kultur gunean; **Xurdiraren kontzertua** (umeendako musikala) 17:30ean, Landako Gunean.

- » **Adinekoendako ekintzak**: Tostada Lehiaketaren III. aldia, 17:30etik 18:00etara; **Duo Twister** musika ikuskizuna, 18:00etatik 19:30era; Tostada Lehiaketaren sari banaketa.

### ELORRIO

- » **'Gazteko Dantz'**, Ateneon, otsailaren 21ean, 18:30etik 21:00etara.
- » **Ikastetxeen mozorro desfilea**, ikastetxeetatik plazaraino, otsailaren 24an, 10:30ean; umeendako parkea (6-12 urte) Kiroldegiko pilotalekuan, 11:00etatik 12:00etara (2,3 eta 4. mailakoendako), 12:00etatik 13:00etara (5 eta 6. mailakoendako), 13:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara denontzat; **Abiba Diskojoia** eta txokolatada guztiendako, 18:30etik 22:00etara.

### ERMUA

- » **Hartzaren Eguna**, otsailaren 20an, 18:00etan, Cardenal Orbe plazatik abiatuta. Alboko musika eskolako trikitilariak lagunduta, hartzak

kalerik kale jardungo dau Ermuko kantak abestuz.

- » **Umeendako jolasak**, otsailaren 21ean, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; kalejira **'Irlutxa'** txarangagaz, 19:00etan; **Tony Ronalden** kontzertua, 23:30ean.




- » **Kalejira dendari eta ostalarien bandagaz**, otsailaren 24an, 8:30ean; haurrendako diskoteka, 16:00etan; **'Escuela de vuelo'** kale ikuskizuna Tiritirantes taldeagaz 19:00etan, **Gose** taldearen kontzertua, 23:00etan.

### IURRETA

- » **Mozorro bazkaria**, otsailaren 21ean; poteoa **Osabi** taldeak girotuta, 12:00etan; Maiztegi jatetxean bazkaria, 14:00etan; erromeria **Luhartz** taldeagaz iluntzera arte.
- » **Begira** taldeagaz erromeria Olaburu frontoian, 16:30ean.

### MALLABIA

- » **Bertso poteoa**, Iker Zubeldia eta Garikoitz Sarriugartegaz, otsailaren 20an, 19:00etan; erromeria **Saioa, Aitziber eta Lutxurdiogaz**, 22:00etan.
- » **Nesken saskibaloia** eskolako frontoian, otsailaren 21ean, 11:30ean; txitxiburduntzi Trabaku-Goikoan, 17:00etan.



- » **Umeendako ekitaldiak**; otsailaren 24an, goizean zehar eskolan neska-mutilek jolas, kantu eta dantzak izango ditue euren mozorroei bizitza emonez. 12:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 16:30era **Haurrendako Parkea** frontoian. Txokolatada, 17:00etan, Mallabia I kirol etxean; **Bizargorri** taldeagaz erromeria eta Mozorro Lehiaketa 18:00etatik 21:00ak arte Mallabiko I kirol etxean. Mozorro Lehiaketaren sari banaketa, 19:00etan: 12 urtetik beherako mailan 60 euro lehenengoari eta 30 bigarrenari; taldekoan 120 euro lehenengoari eta 60 bigarrenari; 12 urtetik gorako mailan 100 euro lehenengoari eta 50 bigarrenari; taldekakoan 200 euro lehenengoari eta 100 bigarrenari.

## MAÑARIA

- » **Txokolatada**, Errekondo tabernan, jubilatuen egoitzan, otsailaren 24an. Otsailaren 28an, berriz, **Potxin eta Patxin pailazoak** frontoian, 17:00etan. Txokolatada beroa denendako.



## OTXANDIO

- » **Txupinazoa eta pregoia**, 13:00etan; txapliguak, kalejira, buruhandiak eta poteoa, 13:05etik aurrera; ondoren, bazkaria; txupinazoa eta **entzierroa**, 17:00etan; kalejira bandagaz, 17:30ean; desfilea eta txokolatada, 18:00etan; gauez jaia Otxandioko tabernetan.

## ZALDIBAR

- » **Umeen kalejira**, otsailaren 24an, 10:15ean; txokolatada eskolan, 11:30ean; umeen jaialdia (play back...) 12:00etatik 14:00etara; Mozorro Lehiaketa, 17:00etan. Mozorro Lehiaketako sariak: 16 urtera arteko mailan 60 euro irabazleak eta 30 euro bigarrenak (ondoan mozorroetutako taldearen-tzat 90 euroko sari berezia); 16 urtetik gorako mailan 75 euro irabazleak eta 45 euro bigarrenak (ondoan mozorroetutako emakumezko taldearendako 120 euroko sari berezia). **Orots** taldeak dantzaldia eskainiko du, 18:00etatik aurrera, Kiroldegian.

## IPUINAK

### IURRETA

- » **Cristina Verbena**, helduendako ipuin kontalaria; otsailaren 27an, 20:00etan, lurretako Bibliotekan

## JAIK

### BERRIZ

- » **Hiltegixe gaztetxearen X. urteurrena**, otsailaren 21ean. Berriz Old School Bands Fest: Hyssopus,





LDF, Fast Ladrillo, Atl, Nabari eta Manhattan. 21:00etan hasiko dira emanaldiak Hiltegitxe gaztetxean.

**ELORRIO**

» **Gaztetxearen XXI. Urteurrena**, otsailaren 21ean. Jolas gunea (Freestyle, tirolina...), 10:30ean; trikipotea, 13:00etan; omenaldia San Josen, 14:00etan; bazkaria, 15:00etan; kalejira, 18:00etan; kontzertuak: **All Jazz Era** eta **Laket**, 22:30ean.

**LEHIAKETAK**

**ABADIÑO**

» **Emakumeen Nazinoarteko Egunerako kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa**. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 16a da: Errota kultur etxean edo Udaleko Berdintasun Zerbitzuan. Saria: 600 euro. Herriko onenarentzat, barriz, 150 euro izango dira.

**BERRIZ**

» **Emakumeen nazinoarteko egunerako kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa**. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 16a da: Udaleko erregistroan edo Udal Liburutegian. Saria: 300 euro. DBHko ikasleen artean irabazleak argazki kamara digitala lortuko dau (94 682 40 36-(6) / [berdintasuna@berriz.org](mailto:berdintasuna@berriz.org)).

**LITERATURA**

**IURRETA**

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenetan, 18:30etik 20:30era, lurretako Udal Liburutegian. Aurretik halan eskatuz gero haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe, gura daberenendako: (94 681 27 26 edo [biblioteka@iurreta.net](mailto:biblioteka@iurreta.net)).

**MUSIKA**

**DURANGO**

» **Kokein + Tuesday evenings**, otsailaren 20an, 22:00etan, Plateruenea kafe antzokian.  
 » **Damba (Euskal Herria, Venezuela, Frantzia, Kuba) rock alternative and world music**; otsailaren 21ean, 22:30ean, Plateruenean.

**ZORNOTZA**

» **Funkanema + Vendetta** taldeen kontzertua otsailaren 20an, 21:00etan, Zornotza Aretoan.



**ZINE-KLUBA**

**BERRIZ**

» **Zine emanaldia: 'Camino'** Otsailaren 22an 19:00etan, Kultur Etxean.

**ERMUA**

» **Umeendako zinea: 'Wall-E: batallón de limpieza'**. Otsailaren 22an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.



» **Zine erotiko zikloa: 'La mujer del abogado'** (zuzendaria: Im Sang Soo), otsailaren 26an, Lobiano kulturgunean.

**ZORNOTZA**

» **KIMUAK 07: 2007ko euskal film laburrik onenen bilduma; 'Uso basatia-Columba Palumbus'** (Kondo Alman-do), **'Decir adiós'** (Victor Iriarte), **'Hezurbeltzak-Una fosa común'** (Izibene Oñederra), **'Las horas muertas'** (Haritz Zubillaga), **'Limoncillo-Tres historias del oeste'** (Dorado, Berdejo eta Cobeaga), **'No es una buena idea'** (Ugo Sanz), **'Taxi?'** (Telmo Esnal) eta **'Traumatología'** (Daniel Sánchez Arévalo). Otsailaren 20an, 21:00etan, Zornotza Aretoan.



» **'Joe Strummer: the future is unwritten'**; otsailaren 24an, 20:15ean, Zornotza Aretoan. Zuzendaria: Julien Temple.



Otsailaren 21ean, 22:30ean

**DAMBA, PLATERUENEAN**

Damba izateko modu bat da; herrietako sustraietatik datorren musika da eta munduko musikarekin nahasten dena. Musika tradizionala eta modernoa uztartzen saiatzen dira. Rumba, bluesa, punka, reggaea, funka, rocka, musika elektronikoa... estilo asko darabitez. 'Y si rompo mi camino' euren lehen lana aurkeztuko dabe Euskal Herriko, Kubako, Bartzelonako zein Parisko musikariak batzen dituen taldeak.

**ZINEMA**

**DURANGO**

Zugaza

**Revolutionary road**

Zuzendaria: Sam Mendes  
 barikua 20: 19:00 / 22:00  
 zapatua 21: 19:30 / 22:30  
 domeka 22: 19:30 / 22:30  
 astelehena 23: 19:00 / 22:00  
 martitzena 24: 20:00



Umeendako zinema

**El lince perdido**

zapatua 21: 17:00  
 domeka 22: 17:00

**ELORRIO**

Arriola antzokia

**El intercambio**

Zuzendaria: Clint Eastwood  
 zapatua 21: 22:30  
 astelehena 23: 20:00



**ZORNOTZA**

Zornotza Aretoa

**Il Divo**

Zuzendaria: Paolo Sorrentino  
 zapatua 21: 22:00  
 domeka 22: 20:00  
 astelehena 23: 20:00



Umeendako zinema

**El lince perdido**

domeka 22: 17:30

**BOTIKAK**

**Barikua, 20**  
 09:00-09:00  
 • De Diego (Intxaurren 22 - Durango)  
**Zapatua, 21**  
 09:00-09:00  
 • SanRoma (Uribarri 5 - Durango)  
 09:00-13:30 (\*14:00)  
 • Campillo / De Diego / Balenziaga / Unamunzaga / Sagastizabal / (Durango)  
 • Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)  
 • Irigoien  
 (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)\*  
 • Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)\*  
**Domeka, 22**  
 09:00-09:00  
 • Campillo (Montebideo 24- Durango)  
 09:00-22:00  
 • Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)  
**Astelehena, 23**  
 09:00-09:00  
 • Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)  
**Martitzena, 24**  
 09:00-09:00  
 • SanRoma (Uribarri 5 - Durango)  
 09:00-22:00  
 • Balenziaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)  
**Eguaztena, 25**  
 09:00-09:00  
 • Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)  
**Eguena, 26**  
 09:00-09:00  
 • Unamunzaga (Muruetta Torre 2C - Durango)

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**SOS Deiak.....112**  
**DYA .....94 620 28 00**  
**Gurutze Gorria ....94 681 09 49**  
**Osakidetza .....94 600 72 00**  
**Ertzaintza .....94 466 93 00**  
**Suhiltzaileak .....112**  
**GARRAIOAK**  
 Euskotren.....902 54 32 10  
 Durango .....94 681 02 32  
 Bizkaibus .....94 448 40 80  
 Pesa .....902 10 12 10  
 Continental Auto ....945 286 466  
**TAXIAK**  
 Abadiño .....946 814 470  
 Matiena.....606 459 988  
 Durango Geltokia.....946 811 001  
 Goco Tour .....946 202 860  
 Tele Taxi .....944 102 121  
 Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026  
 Elorrio Geltokia .....946 820 040  
 J.L. Uriarte ..670 402 002  
 I. Estebez ....670 678 273  
 M Galeano.....946 582 854  
 Iurreta .....946 201 565

**UDALAK**  
 Abadiño .....94 621 55 30  
 Atxondo .....94 682 10 09  
 Berriz .....94 682 45 84  
 Durango .....94 603 00 00  
 Elorrio .....94 658 27 12  
 Garai .....94 681 63 93  
 Iurreta .....94 620 12 00  
 Izurtza .....94 681 35 48  
 Mallabia .....943 17 14 61  
 Mañaria .....94 681 89 98  
 Otxandio .....945 45 00 20  
 Zaldibar .....94 682 70 16  
**UDALTZAINGOAK**  
 Abadiño .....94 621 55 33  
 Berriz .....94 682 40 36  
 Durango .....94 603 00 10  
 Elorrio .....94 682 02 18  
 Iurreta .....94 620 08 88  
**BESTELAKOAK**  
 Arriola .....94 658 31 92  
 San Agustin .....94 603 00 21  
 Zornotza Aretoa .....94 630 01 68  
 Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE .....94 620 36 47  
 Errota KE .....94 466 94 16  
 Gorabide .....94 681 24 35  
 Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51  
 Nekazal bulegoa ....94 681 15 20  
 Uren Partzuergoa ..94 681 74 86  
 Butanoa (UME).....94 681 08 77  
 Araztegia .....94 620 28 00  
 Foru Ogasuna.....94 681 07 42  
 INEM Durango .....94 681 12 96  
 Gizarte Segurantz 94 681 49 58  
 Epaitegiak.....94 603 00 51  
**KIROLDEGIAK**  
 Igerilekua  
 Astola .....94 620 29 29  
 Igerilekua  
 Atxondo .....94 623 14 38  
 Berriz .....94 682 43 74  
 Durango  
 (Landako).....94 621 51 30  
 Durango  
 (Tabira) .....94 621 51 50  
 Elorrio .....94 682 10 27  
 Zaldibar .....94 682 73 74

**EGURALDIA**

**12° BARIKUA**  
 Behe-lainoagaz eta temperatura hotzagaz itzartuko gara. Hau desagertzerakoan, giro oso atsegina geratuko da, hodeiak eta ostarteak tartekatuz. Ekialdeko haizea ibiliko da eta honek hodeiak uxatuko ditu.

**11° ZAPATUA**  
 Giro egonkorragaz jarraituko dogu. Erdi eta goi mailako hodeiak izango doguz, tarteka eguzkia be ikusiko dogularik. Goizean goizeko temperatura hotza izango da, eta zenbait tokitan izotza botako dau.

**13° DOMEKA**

**11° ASTELEHENA**

**8° MARTITZENA**

durangaldeko  
bherriak  
ezagutzeko

**anboto**  
komunikabideak



**durangaldeko astekaria**

**Egin zaitez harpidedun**



harpidedun egiteko, deitu  
94 623 25 23 telefonora edo  
[harpidetza@anboto.org](mailto:harpidetza@anboto.org)-ra  
zure izen-abizen eta helbidea bidali



# KIROLAK >



J. Fernandez

**M**ailari eustea helburu duela, Abadiño Mahai-tenis Taldea lan txukuna egi-ten ari da. Iaz asko sufritu zuten. Hainbat jokalarik taldea utzi eta gero, geratzen zirenek merituzko lana egin zuten maila mantenduz. Aurten, liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan, zazpigarren daude jaitsieratik sei puntura, eta ematen du ez dutela iazko estuasunik pasatuko.

Izan ere, iaz hankamotz zegoen taldeak neurriko osagaiak batu eta egoki uztartu ditu aurtentzen, bila zebiltzan oreka bilatuz. Alde batetik, gazteek beharrezko lezioak ikasi zituzten iaz; zaildu egin ziren. Erantzukizunari erantzukizunez erantzun zioten. Bestetik, taldea utzitako jokalarik batzuk bueltatu egin dira –Rafael Plasencia, adibidez– eta espe-

## Neurriko osagaiak

rientzia sekula ez dago sobera. Azkenik, fitxaketa bi egin dituzte (Porfirio Hernández sopoloztarra eta Juan Luis Fernandez gasteiztarra), taldea osatu ezinik bada-biltza euren ordezkari jokatu dezaten. Hernández elbarria da eta gurrildun aulkian jokatzen du; "asko harritu egingo liriteke jokatzen ikusiko balute", Rafael Plasencia-ren esanetan. Espainian bigarren izana da bere kategorian, eta Joko Paralinpikoetarako sailkatze- ar izan zen.

### Burgosen aurka

Aipatutakoek gainera, Jonatan Romero, Sergio Hurtado, Arturo Goienetxe, Imanol Tinoko eta Unai Munitxa dira taldea osatzen duten jokalariek. Orain arte, bost partidu irabazi dituzte. Joan zen

**Gaztetasunak, esperientziak eta fitxaketek oreka eman diote taldeari**

asteen 4-2 garaitu zuten azken aurreko dagoen Club Burgos.

Bihar Burgosko beste taldearen, Caja Burgosen aurka jokatuko dute etxean. Azken hauek bosgarren daude, Abadiño baino lau puntu gehiagorekin: Partidu zaila da, baina abadiñarrek badi- tuzte irabazteko aukerak. Ondoren, Basauri, Arauko, Gure Talde eta Antonio Mendoza dira falta zaizkien aurkariak. ■ J.Derteano

### 24 Garaipen erraz bi eta igoeratik gertu

Azken bi sailkatuen kontra sei puntu batu eta igoera postuen atarian jarri da Abadiño Xake Taldea; hala ere, taldearen errendimendua ez da oraindik hain ona.

### 25 Biharko izarrak gaurtik distiratsu

Biharko Izarrak pilota txapelketa aurkeztu dute asteen. Seigarren aldia izango du. Mallabian jokatuko dira ikusmin handia eragin ohi duen txapelketa honetako partiduak.

# Beltzetik zurira aldatu dira Abadiñoren aukerak xakean

Joko ikusgarriak erakutsi gabe, azken bi sailkatuen kontra puntu mordoxka batu eta igoeratik gertu jarri da Abadiño Xake Taldea



Iaz galdu zuten maila berreskuratu nahi dute Abadiño Xake Taldeko jokalariek. Judit Fernandez

Abadiño Xake Taldea laugarren dago, igoera postutik 2,5 puntura, joan zen asteburuan etxean Egidazuren kontra irabazi ondoren (3-1). Ez dago esaterik abadiñarrak goi mailan jokatzeko dabilzanik, baina Euskal Ligako Lehen Maila parekatua dago, eta aste batetik bestera aldaketa handiak ematen dira.

Abadiñok oso txarto hasi zuen liga. Lehen bi jardunaldietan galduta beheko zuloan sartu ziren. Harrezkero jokatuak hiru jardunaldietatik bi irabazi dituzte, sei puntu batuz. Garaipen biak -Gros eta Egidazu- ligako azken bi sailkatuen kontrakoak izan

dira. Horregatik, abadiñarren erreakzioa testuinguru horretan neurtu beharra dago. Egia da Arlutzen (14,5 puntu), Oberenaren (13,5) eta Easoren (13) atzetik laugarren daudela, Sestao Brekin puntuetara berdinduta (10,5), baina liga amaizeko falta diren lau lehietan goragoko tal-

deen kontra maila hobea erakutsi behar dute. Asteburuan Orvina Bren kontra jokatu dute kanpoan. Abadiñok puntu eta erdi ateratzen dio Iruñeko taldeari.

## Larrasoloeta bigarren

Durangoko Larrasoloeta Xake Taldea bigarren dago Goren Mailan. Puntu erdiko aldea ateratzen dio Altxaga Leioa liderrak. Hain zuzen ere, talde horren kontra galdu zuten joan zen asteburuan durangarrek (2,5-1,5). Elorrioko Zaldi Baltza, aldiz, azkenareko dago sailkapenean, zortzi punturekin. Puntu batera ditu Erandio eta Zuri Baltza B. ■ J.D.

**Inportantea da Orvina Bren kontra uzta ona batzea, aurreko muturrean jarraitzeko**

## DRT eta Elorrio, biak garaile

Durango Ilarduya Bk irabazi egin zion Arrasateri (25-19), eta Elorriok Gernikari (5-20). Bihar Iruenen zelaian jokatu dute lehenengoak eta Mungia-Karraldorenean bigarrenak.

Bestalde, DRTko talde nagusiak galdu egin zuen Vigoren kontra (3-18), eta helburu duten sailkapeneko hirugarren postua asko urrundu zaie; 11 puntura dute. Bihar Asturiasen ezin dute hutsik egin Belenos azken sailkatuaren kontra.

## Abadiño-Elorrio, goi mailako derbia bihar

Bigarren Erregionalean ikusi daitezkeen partidurik interesgarrienetakoa jokatu dute, bihar, Abadiñok eta Elorriok. Abadiño hirugarren dago Fruiz bigarrenarekin puntuetara berdinduta; Elorriok lider darrai, hamar puntuko aldearekin.

Abadiñok hiru puntuen premia handiagoa du. Joan zen asteburuan 2-0 galdu zuen Amorebietaren aurka eta Fruizek bigarren tokia kendu zien. Elo-

riok ere ez zuen irabazi Lezamara egindako bisitan (0-0).

Bestalde, Berriz Bk eta Extremeñok ere derbia dute asteburuan. Berriz zazpigarren dago, 23 punturekin, eta Extremeño hamargarren, 20rekin.

**Abadiñok partidurik ez du galdu etxean; ezta Elorriok ere kanpoan**

**Gotzon Gomez**  
• Errugbi entrenatzailea



## Errugbi eskolak

Aurreko artikulua haritik jarraituz, errugbi eskolak aipatzen nituen gure taldeek jarraitu beharreko bide moduan. Baina zer dira errugbi eskolak?

Argi dago gurea lako gitxiengo kirol batean harrobia lantzea ezinbesteko dogula, eta horretan, hain zuzen be, oinarritzen dira errugbi eskolak: harrobiaren lanketan. Kirolari gazteenak, hezi eta animatuz kirol honetan lehen urratsak emon daiezen. Horretarako, bi ildo edo bide nagusi lantzen dira.

Alde batetik, eskola, ikastetxe edo ikas-toletara hurbiltzen dira klub bakoitzeko ordezkariek; bertan, kirol heziketako arduradunagaz hartu-emonetan ipini, materiala eskaini eta gazteekin hainbat sesio egiten dira, errugbiaren oinarriko arauak azalduz. Bestetik, klub bakoitzak dituen instalazioetan antolatzen dira sesio eta entrenamenduak, normalean, astean behin edo bitan. Beti be, ikuspuntu ludikoa galdu barik. Ekintza honek hamabostero edo hilero herri askotan antolatzen diren topaketetan izaten dabe islada, non herrialde askotako eskolak elkartzen eta goiz osoan euren arteko norgehiagokak antolatzen diren. Ideia bat izan daizuen, topaketa honeetan 200 bat gazte elkartzen dira (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Kantabriakoak).

Aukera badaukazue, martxoaren 14an Elorriora eta martxoaren 28an Durangora hurbildu zaitezte, ikuskizunak merezi dau-etal

Adituarentxokoa

## Lagunek bolada itzelean darrai, derbia irabazita

Derbi zirrargarria jokatu zuten Abadiñoko Gaztetxiek eta Abadiñoko Lagunek; area batetik bestera ibili ziren partidu osoan. Azkenean, sarritan gertatzen den moduan, bolada onean dabilenak eraman zituen hiru puntuak (1-2). Gaztetxiek 1-0 jarri zen. Lasterretera iritsi zen

berdinketa, jokaldi polemikoan (jokalaria bat lurrean zegoela ohartu ez eta jokaldia jarraitu ondoren). Partiduaren hondarean iritsi zen bigarrena, penalti bikoitz batekin. Lagunek azken hamar jardunaldietatik bederatzirabazi ditu, eta igoeratik puntu bakarrera jarri da.



Abadiñoko Lagunek lan eginda irabazi zuen. J. Fernandez

**A** CENTRAL FORESTAL

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa  
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187  
Faxa: 946 205 194



# Biharko Izarrak dir-dir egiten hasi dira Mallabiko pilotalekuan

Atzo jokatu zituzten lehenengo partiduak eta domekan beste bikote bi neurtuko dira



Mallabiko Goizeder jatetxean batu ziren txapelketan parte hartu duten hainbat pilotari.

Mallabiko VI. Biharko Izarrak Txapelketa abian da. 18 eta 23 urte arteko 24 pilotari dabilta lehia; lau bizkaitar –tartean Iñaki Larrinaga elorriarra–, lau errioxar, zortzi nafar, zazpi gipuzkoar eta arabar bat. Iaz Beroizekin bikotea osatuz txapelketa irabazi zuen Olo ere badabil, iazko lorpena berri nahian.

Txapelketaren sistema urterokoa da. Pilotariak multzo bitan banatu dituzte; bakoitzean sei aurrelari eta sei atzelari daude. Aurrelari bakoitzak atzelari guztiekin partidu bana jokatu du, eta alderantziz. Denek denekin jokatuko dute. Multzo bakoitzean ondoen dabilta bi bikoteak finalerdietara pasatuko dira.

## Liga erregularra bihar amaituko du Tabirakok

Ez da mirarik gertatu eta Tabirakok jaitsiera fasea jokatuko du aurten. Bihar, jokoan ezer ez dutela, ligako azkenengo partiduak jokatuko dute Landakon Ardoien kontra.

Tabirakorekin batera, jaitsiera fasean ariko dira multzokide izan dituen Bide Bide Ibiza, Pamploña UPNA, Goierri-Verkol eta Getxo; A multzoan, Mondragon Unibertsitateak, Mikeldik, Peña Basketek, Bidegintzak eta Urdanetak ere ezin izan dituzte ekidin azken lau postuak.

Jaitsiera fasea goiko aldean hasiko du Durangoko taldeak, sei garaipenekin eta porrot birekin. Uzta polita da mailari eusteko bidean. Oraindik jakinarazi ez badiete ere, segururik datorren asteburuan bertan hasiko dute bigarren fasea. ■ J.D.

**Goiko aldean hasiko du jaitsiera fasea Durangoko taldeak**



Joan zen astean Getxo menderatu zuten (62-87) . J. Fernandez

**Bizkaiko lau pilotari daude. Horien artean Iñaki Larrinaga elorriar gaztea**

Atzo hasi zen txapelketa eta domekan izango dute bigarren jardunaldia, 17:00etan hasita. Lehenengo Armendarizek eta Otxotorenak Renobalesen eta Mendinuetaen kontra jokatuko dute; ondoren, Mendizabal eta Castillo Yoldi eta Aldaperen aurka ariko dira.

**Joko-sistema ohikoa da; denak denekin eta denen aurka ariko dira**

Datorren egunerako, 21:30ean, beste lehia bi daude programatuta. Alde batetik, Andreuk eta Aldapek Larrañagaren eta Otxandorenaren aurka jokatuko dute; bestetik, Perezek eta Mendinueta Idoate eta Senperena izango dituzte aurrez aurre. Ligaxkak maiatzean amaituko, dira eta orduan erabakiko dira finalerdietako datak.

**Profesionalerako bidea**  
Biharko Izarrak Txapelketan aritu izan diren pilotari asko dabilta gaur egun profesionalen artean. Adibideak aurkitzeko ez dago urrun joan beharrik, Durangaldean hainbat daudelako: Rober Uriarte, Asier Berasaluze, Ibai Zabala eta Asier Iza. Guztiak izan ziren aurkezpen ekitaldian, txapelketari euren babesa eman asmoz. ■ J.D.

## Klubuen txapelketatik at dira gure ordezkariak

Euskal Herriko Klubuen Arteko Txapelketa azken txanpan sartu da. Multzo bakarra izan duten kategoria batzuk amaitu dira, eta multzo bat baino gehiagoko modalitateetan ia erabakita daude finalerdia.

Zesta-puntan eta Ohorezko mailan, Durangoko Ezkurdi finalerdietatik kanpora geratu da. Partidu bat irabazi eta bost galdu dituzte. Joan zen asteburuan 25-35 galdu zuten Zumaiaren aurka.

Paleta goman Abadiño Tornosolo ere kanpoan geratu da; lautik bi irabazita finalerdietako atarian geratu dira.

Berrizko Oizpek lan ona egin du pilotan, sei partidutik lau irabazita. Zoritxarrez, talde bakarra sailkatu da finalerdietarako (lau multzo daudelako), eta Zazpi Iturrik denak irabazi ditu. Azkenik, Abadiño Atxartek ezin izan du partidurik irabazi bere multzoan.

## Agenda

**FUTBOLA**  
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)  
**Zaldúa - Gazteluzarra**  
Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian  
**BIGARREN ERREGIONALA** (gizonak)  
**Abadiño - Elorrio**  
Zapatuan, 16:30ean, Astolan  
**Berriz B - Extremeño**  
Zapatuan, 16:00etan, Berrizburun  
LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)  
**Iurretako - Bizkerre**  
Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelain  
**BIGARREN ERREGIONALA** (emakumeak)  
**Elorrio - Arratia**  
Domekan, 16:00etan, Eleizalden

**ARETO-FUTBOLA**  
LEHEN NAZIONAL B MAILA  
**Elorrioko Buskantza - Kenci**  
Zapatuan, 18:00etan, Elorriko kiroledegian  
**EUSKAL LIGA**  
**Sasikoa - Petronor**  
Zapatuan, 19:15ean, Landakon  
**PREFERENTE MAILA**  
**Kurutziaga - Goiz Argi**  
Domekan, 12:00etan, Landakon  
LEHEN ERREGIONALA  
**Abadiño Lagun - Hegalariak**  
Zapatuan, 17:00etan, Berrizko kiroledegian  
**Mallabia Bastida - Mazusberri**  
Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroledegian  
**BIGARREN ERREGIONALA**  
**Gu Lagunak - Hasi Durango**  
Zapatuan, 15:30ean, Landako kiroledegian  
**Mendibelts - Usansolo**  
Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroledegian  
**Dantxari - Biarko Gizonak**  
Zapatuan, 16:30ean, Lanbide Heziketako Institutuan  
**LURRALDEKAKO MAILA**  
**Kulturala - Beti Arin**  
Zapatuan, 16:45ean, Landako kiroledegian

**SASKIBALOA**  
LEHEN MAILA (gizonak)  
**Tabirako - Deusto**  
Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroledegian  
LEHEN MAILA (emakumeak)  
**Tabirako - Abaroa**  
Zapatuan, 20:00etan, Landako kiroledegian  
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)  
**Julza-Zaldúa - Barrena Berri**  
Zapatuan, 18:30ean, Zaldibarko kiroledegian  
**Tabirako - Marrazoak**  
Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroledegian

### SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak	
1- Amurrio.....47	15- Laudio.....28
2- Portugalete.....47	16- Alaves B.....24
3- Elgoibar.....46	17- Ordizia.....23
4- Gernika.....43	18- Zarautz.....22
5- Lagun Onak.....43	19- Eibar B.....20
6- Beasain.....41	20- San Ignacio.....16
7- Zamudio.....38	
8- Kulturala.....33	
9- Leioa.....32	
10- Baskonia.....32	
11- Zalla.....32	
12- Arenas Getxo.....31	
13- Santurtzi.....31	
14- Amorebieta.....29	

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak
1- Vitoria.....14 (+326)
2- Baskonia Fund.....13 (+134)
3- Logroño.....12 (+205)
4- Ardoi.....12 (+104)
5- Arabako EHU.....10 (+59)
6- Bide Bide.....8 (-50)
7- Tabirako.....7 (-30)
8- Pamploña UPNA.....4 (-101)
9- Goierri-Verkol.....2 (-393)
10- Getxo.....2 (-254)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak
1- Abaroa.....16 (+200)
2- Bera Bera.....16 (+327)
3- Gernika.....14 (+206)
4- Ardoi.....13 (+139)
5- Atletico SN.....12 (+37)
6- Tabirako.....12 (+136)
7- Getxo.....12 (+81)
8- Obenasa.....11 (+40)
9- Arabako EHU.....9 (-3)
10- Las Gaunas.....6 (-182)
11- Artieda.....6 (-114)
12- Irlandesas.....6 (-188)
13- Uni. Navarra.....6 (-21)
14- Easo.....4 (-220)
15- Loiola.....3 (-195)
16- Astigarraga.....3 (-243)



Durangoko Kulturalak 33 gol sartu eta 30 jaso ditu orain arte

# EDERTASUN GIDA

## Ileapaindegiak

### M<sup>a</sup> JESUS LUQUE

• ileapaindegi unisexa •



**Kurutziaga**  
**9 behea**  
94 681 43 89  
48200 Durango

### Pilar Ruiz

• ileapaindegia •



SABECO Zentro komertziala • Tel.: 94 681 03 96



- Cristina Agirre eta Eva Agirre
- Estetizistak dira
- Apaindegia daukie Durangon

## Gorputz tratamenduak

### Zelakoak dira zuek egiten dozuezen gorputz eta aurpegi tratamenduak?

Mota askotako tratamenduak egiten doguz. Aurpegirako hidratazioa, leuntasuna, garbitasuna eta gaztetasuna emoten dabenak, adibidez; eta gorputza edertzeko, argaltzeko, zelulitisa kentzeko zein hankak arintzekoak be bai.

### Nori zuzenduta dagoz tratamendu horreek?

Adin eta era guztietako jenteari zuzenduta dagoz. Behar gehien daukien bezeroak be gustura izten doguz gurean.

### Zer lortu gura dozue zuen tratamenduen bitartez?

Gorputz tratamenduetan azalaren harmonia berreskuratzea da gure helburua, eta emaitzak lehenengo egunetik ikusten dira. Askotan tresneria handia eta masaje neketsuak emon behar izaten doguz bezeroaren gurariak asetzeko; gorputzak aurrez zeukan itxura berreskuratzea gura dogunean, adibidez.

### Zer girotan emoten dozue zuen tratamenduak?

Gure masaje guztiak giro lasaian hasten dira. Horretarako, musika gozoa erabiltzen dogu, lasaitasuna eta harmonia transmititzeko. Polinesiar jatorriko Ayus-Lomi masajea erabiltzen dogu energiak orekatzeko, zeta eta kashemirrezko estalkiak erabiliz. Azala indartzeko, berriz, kuartozko hagatxoak erabiltzen doguz.

### NUKLEO

ileapaindegia

Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 688 29 96

### Adatz

• ileapaindegia •

- Irudi aldaketa
- Ilerako tratamenduak
- Fotodepilazioa

Zublaurre, 4 behea • IURRETA • Tel.: 94 620 06 28

## Estetika Zentruak

### Virginia Ansorena

• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekalena diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan



San Agustinalde, 1<sup>a</sup>A-1<sup>a</sup>C, 48200 Durango  
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 663 716 017

### Ana Camarero

• apaindegia •



Golenkale 16-1. esk. • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

### FOTODEPILAZIOA

- Laser diodoa (azal beltzorano)
- Alejandrita (ile argia)
- Neodimio Yag
- Argi pulsatua



DURANGO • Errebe kalea, 1 • Tel.: 94 621 39 29  
GERNIKA • BARAKALDO www.fotodepilaser.com

### Cristina Agirre

• apaindegia •



Fray Juan de Zumarraga • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



# IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...  
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



## ESKAINTZAK

Neska euskalduna  
edozein lan mota  
egiteko prest,  
edozein ordutegitan.  
Esperentzia la  
zerbitzari bez  
umeein...

## ERRENTAN EMAN

Durango. Alde  
zaharreko etxe bat  
alokagai. Guztiz  
barriztatuta dago  
eta hiru gela d  
750 euro...

## SALDU

Fun roller autoka-  
rabana salgai.  
2003 urtekoa. 54 km.  
Motorra Fiat 2.8 JTD  
127 zaldi. 24.  
euro...

## HARTU

Neska euskalduna  
behar dogu 10 urte-  
ko neska bati klase  
partikularrak emateko  
(ingeles  
beste irakasg  
batzuk)...

## BEREZIAK

Autoa konpartitzen  
dut Gasteiztik  
Otxandiora joateko,  
astelehenetik ostegunera.  
09:30  
aurrera...

## OPARI



Artzai-txakurrak.  
Hilabete bateko  
kuma oparitzen  
dut. Arra da.  
Oso polita.  
...

ANB (tartea) + iragarkia 7789 (1,2€ + BEZ)  
Tel.: 94 621 79 02

# IRAGARKIAK

## LANA

- Eskakerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Eguazten arratsaldeko 18:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko ditugu. Mezuak jaso eta hurrengo alean publikatuko dira.

**Zure iragarkia argitaratzeko:** Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ

**IRAGARKI PARTIKULARRAK** Ordaindutako moduloak fondo beltzagaz eta letra zuriz argitaratuko dira.

**IRAGARKI PROFESIONALAK** Modulo bat, astero: 7 euro (BEZ barne)

Edozein motako iragarkiak kontratatuzeko honako telefonora deitu: 94 621 79 02

Neska gaztea Elorrion portala garbitzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 657 461 674

Mutil euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsaldetan eta asteburuetan. Tel.: 660 464 851

Turismo ikasketadun neska turismo eta ostalaritza arloan lan egiteko prest: hotelak, agentziak, tabernak... Tel.: 646 841 206

Neska umeak zaintzeko, etxeak garbitzeko edo tabernan lan egiteko prest. Tel.: 690 370 178

Denda eta enpresen kontabilitate eta fiskalitatea eramateko prest nago. Ekonomikoa. Tel.: 635 715 928

Neska gaztea portala garbitzeko prest dago. Tel.: 666 691 003

Lan Harremanetan diplomadun neska durangarra administrari, kometzial, harreragile... moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 677 153 135

Garbiketan edo/eta ume zein adinekoak zaintzeko prest nago. Egun erdiz edo osoan. Tel.: 680 302 861

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

## ETXEBIZITZAK

### SALGAI

**Durango.** Pisua salgai. Goitik behera berriztatutako etxebizitza, estreinatze-ko prest. Kanpora ematen du eta berogailua du. Ikuspegi ederrak. 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, bainugela eta egongela altzariz hornitutako sukalde amerikarrarekin. 2 balkoi. Aparkaleku partikularra urrutiko agintearekin. 246.000 euro. Tel.: 635 727 937

**Elorrio.** 67 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Kanpora ematen du. Sotoarekin. Tel.: 94 682 02 26 eta 620 441 249

**Otxandio.** Etxebizitza salgai. Salmenta zuzena, konstruktorearekin. Prezio eta etxe interesgarriak. Tel.: 676 018 586

**Elorrio.** Etxebizitza salgai. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta trastelekua. Guztiz berriztuta, oso eguzkitsua eta polita. Tel.: 617 787 165

## OHARRA

Eroski Moviak ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

## Berbaro elkarteak

Gazte arlorako laguntzailea behar du. Lanaldi erdiko kontratua, berehala hasteko. Tel.: 94 620 19 18 [berbaro@berbaro.com](mailto:berbaro@berbaro.com)

## AUKERA

Durango bideokluba traspasatzen dut. Gozokiak saltzeko gunea dauka eta vendingeko makina bat kanpoan. **27.000 euro** (lehen 42.000). Zonalde interesgarria.

Tel.: 658 724 574

## ANTZERKIA gustoko

**baduzu** anima zaitetz Elorrioko 'Arrapaladan' taldean parte hartzera [arrapaladan@hotmail.com](mailto:arrapaladan@hotmail.com) 635 74 49 71

## LANA

### ESKAERAK

**Abadiño.** irakasle bat behar da antzerki talde batean umeendako tailerrak antolatuzko. Derrigorra da euskaraz jakitea. Tel.: 666 379 572. Deitu 13:00etatik 15:00etara. Erlantz.

**Durangaldea.** Eskualdean zabalduko den hortz-klinika batean odontologia laguntzailea behar da. Derrigorra da euskaraz jakitea. Esperientzia baloratuko da. Bidali CVak Abadiñoako Txirri-Txirri gozoki dendara (Zeletabe 8c behea).

Pertsona euskalduna behar da dendari lan egiteko. Tel.: 943 77 00 34 / 943 77 13 52

**Iurreta.** Jatetxe batean asteburuetan lan egiteko lagun bat behar da. Tel.: 94 681 78 47

**Durangaldea.** Durangaldeko Geu Be elkarteak gizonezko begiraleak behar ditu arratsaldez lan egiteko. Interesatuak bidali curriculum: [afngeube@yahoo.es](mailto:afngeube@yahoo.es). Tel.: 94 621 72 68

**Durango.** Modelatzailea behar da 3Dn egingo den animazio luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa. Erreferentzia: 78. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Blend Shapes teknika behar da 3Dko luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa eskaintzen da. Erreferentzia: 79. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Set Up teknika behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 81. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Testurizatzailea behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 87. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Aseguru merkataria behar da, bezeroak bilatu eta mantentzeko. Derrigorra da gaztelera menperatzea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 153. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Zornotza.** Logopeda behar da ordezkapena betetzeko. Lanaldi erdia. Derrigorra da diplomatura izatea eta euskara menperatzea. Erreferentzia: 656. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Zornotza.** Automozio elektrizitateko teknikaria behar da. Derrigorra da 10 urteko esperientzia izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 886. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Topografo laguntzailea behar da. Kanpoan eta gabinetean lan egiteko. Derrigorra da heziketa izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 889. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

**Zornotza.** Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

### ESKAITZAK

Neska euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Tel.: 645 718 030

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka, gauz edo asteburuetan. Tel.: 650 102 636

Andra euskalduna etxeko lanak egin eta haurrak eskolara eramateko prest. Tel.: 627 468 002

Haur hezkuntzako ikasle euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko eta lanetan laguntzeko prest. Tel.: 625 707 831

Andra euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 94 620 11 85 eta 699 745 723. Ines.

Astelehenerik ostiralera bitartean garbiketak egin edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 637 055 978

# INMOBILIARIARIK

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 22  
48200 DURANGO / Bizkaia

## ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txaleto bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baseria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txaleto bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarrekoko etxea lursailarekin salgai.

## ETXEBIZITZA SALGAI


- Alluitz: Halla, sukalde jantzia, egongela- jangela, 4 logela, 2 komun, 2 balkoi.
- Montebideo: Halla, sukalde-jantokia, logela bakarra, komuna eta balkoia. Etxe jantzia, igogailua. Eraikuntza barria.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukalde, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Etxe jantzia, igogailuarekin eta berogailua hiriko gasarekin.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukalde, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. ( 135 m<sup>2</sup> ).
- Ambrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Montebideo: Halla, egongela- jangela, sukalde, 5 logela, 3 komun. Terraza eta ganbara. 150 m<sup>2</sup>.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun. 2 Garaje. Etxe guztiz jantzia.
- Abadiño - Matiena: Halla, sukalde, egongela, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Abadiño: Berriztatutako. 3 solairuko etxea.
- Bedia: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Hobekuntzekin.
- Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela, eta komuna. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Guztiz jantzia.
- Berriz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 2 komun. 2 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua. Kanpora ematen du.
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.





# DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Ahuntz basak	▼	Oihal txikia	▼	Min
	Estatu, herri	▶	Uretako ugaztun	▼	
	Morroi, neskame	▶			
	Zorrotz				
Irentsiak	▼	Saski mota	▶	▼	
Etanola		Argiro			
▶		▼			
*Bizkaiko mendia	▶				
Lurrin					
▶					
			Etxearen amaieran	▶	
			Lehortu		
Kriptona	▶		Arrei deitzeko	▶	Nasak, moilak
Kakatsuak			Aunitz, ugari	▼	
▶		▼			▼
Pl., suil mota	▶				.Bokala
Ba..., baneuka					Garra
▶			Ikasten saiatu	▶	
			Jainko egiptoarra		▼
Argi, hitz elkarketan	▶	▼			Istua, listua
Ikatz bihurtuak					Kontso-nantea
▶			▼		

SUDOKU >

**Zelan jokatu:** Osatu taula (bederatzi koadrotan banatua), 81 lauki dituen (bederatzi lerro eta zutabetan jarriak), gela hutsak 1-9 arteko zenbakiekin betez, lerro, zutabe edo koadro bakoitzean zenbakirik ez errepikatuzeko moduan.

**1**

	7		9	6		8
5			7	1		
8	4					
4		7	5			2
	2					5
1				8	9	7
					4	3
			2	3		9
3		9	7			1

**2**

1			9			
		3		4	2	
	2	7				5
				3		5
2				4	9	8
	1		6			2
8		6	4	5		3
			8	2		
	7					

ERANTZUNAK >

K	V	U	L	Z	V	K	I
V	U	L	•	L	R	V	•
I	S	V	K	I	•	U	N
V	•	K	V	N	I	L	•
K	V	U	Z	V	K	V	K
•	O	X	L	•	R	K	•
E	X	•	N	I	V	S	U
Z	L	I	U	L	V	•	•
V	L	O	H	O	K	L	V
N	V	R	V	Z	•	K	•
I	H	E	S	•			
O	I	Z	V	N			
•	O	•	B	•			

**3**

5	1	8	6	9	3	2	7	4
6	9	4	7	2	8	1	3	5
2	3	2	4	5	1	7	3	8
7	3	2	4	7	3	1	8	6
3	8	6	7	1	4	5	2	9
6	1	5	6	3	8	1	4	7
4	4	9	4	3	5	8	1	7
1	9	3	5	4	2	6	7	1
8	3	2	8	6	7	9	4	5
3	2	8	1	5	4	6	7	9

**4**

5	1	9	4	7	6	2	8	3
6	7	8	3	2	1	5	4	9
3	6	5	4	2	8	6	1	7
7	4	6	2	8	3	9	1	5
6	5	6	4	7	3	5	8	2
4	7	3	5	1	4	7	8	2
2	8	1	6	3	9	1	4	7
1	9	6	4	5	2	7	6	8
4	4	3	5	2	7	6	1	8
4	6	7	8	1	2	9	4	5
8	3	8	6	5	4	9	1	2

**5**

3	8	5	4	9	6	1	7	2
2	7	8	1	5	4	9	6	3
9	6	3	5	2	7	6	1	8
4	5	6	7	8	1	2	9	3
8	3	8	6	5	4	9	1	2

HOROSKOPOA >

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra  
Santa Ana 6, 48200 durango



**Aries**

martxoak 21 - apirilak 20

Ondo dago zure bikotea maitatzea, baina honezkero lapa samar zabilz. Aldendu zaitez apur bat, zure maitea nazkatu baino lehenago.



**Leo**

uztailak 21 - abuztuak 23

Badoa otsaila, eta badator martxo. Hauteskunde eguna be laster izango dogu; ez zara konturatu? Denpora aurrera doa!



**Sagittarius**

azaroak 24 - abenduak 23

Ez jatzun San Balentin eguneko oparia gustatu? "Bakotxari berea, Jaungoikoaren legea". Arduratu gehiago hartu-emon horretaz.



**Eider Andriuak** otsailaren 19an hiru urte bete zituen. "Hemen gure poxpolin marisorgin. Zorionak, potxola, etxekoan partez".



Otsailaren 23an **Kaietek** urtetxo bat egingo dau. "Zorionak eta mosu handi bat Aramaiotik, batez be, Amaiur eta Uxueren partez".



**Taurus**

apirilak 21 - maiatzak 20

Atzo Eguen Zuri; bihar zapatu karnabal. Hainbeste tostada eta ardaok domeka eskasa ekarriko deutsu...



**Virgo**

abuztuak 24 - irailak 23

Arinago harrapatzen ei da gezurtia herrera baino. Erdizka edo osorik izan, gezurra beti gezur. Zure ingurukoek ez dabe hori merezi.



**Capricornus**

abenduak 24 - urtarrilak 20

Noiz joango zara ileapaindegira? Ingurukoek gauza bera dinotsue, baina zuk kasurik ez. Begiratu ANBOTOKo Edertasun Gidan.



**Gemini**

maiatzak 21 - ekainak 20

Zure txisteak modaz pasatuta dagoz. Dagoeneko, barregura baino negargura sortzen dabe. Gatz apur bat falta jatzu, beharbada...



**Libra**

irailak 24 - urriak 23

Burukomina, lepoko mina, eztarikiko mina... Bete hango edo hemengo minez ei zabilz. Ez ete da izango mimoak jasotzeko teknika?



**Aquarius**

urtarrilak 21 - otsailak 18

Euriagaz gogaituta zengozen, baina aste honetako eguraldi eguzkitsua alaitu egin zaitu. Hartu indarrak eta ez fidatu larregi!



**Cancer**

ekainak 21 - uztailak 20

Gure mendiak politikak dira; ez bakarrik behetik ikusteko. Aprobe-txatu eguraldi ona dagoela, eta egizu itzuli bat!



**Scorpius**

urriak 24 - azaroak 23

Aspaldiko partez, nobedadeak izango dozuz maitasun kontuetan. Bihotza prest daukazu ala denpora-leagaz izoztu jatzu?



**Piscis**

otsailak 19 - martxoak 20

"Carnaval, carnaval, carnaval te quiero!...". Askatu irudimena eta gorputza. Ondo pasatu, gitxi gastatu eta bueltak ANBOTORI!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

Zorionak **Mikel eta Larraitzi**. Aste honetan zotz egin dogun tarta zeueri egokitu jatzue. Oparia eskuratzeko txartela gura dozuenen jaso zeinkie, Anbotoko egoitzan.



# EUSKO LABELA >

## Eusko Labeldun Arabako patataren sasoian sartu gara bete-betean



**E**usko Label bereizgarriak goi mailako kalitateko Arabako Patataren identifikazioa eta erabateko bermea eskaintzen ditu.



Eusko Labelak Monalisa eta Kenebeck patatekin dihardu.

Eusko Labelak aukeratzen dituen pataten landaketak ingurumena errespetatu behar dau, eta zapore eta kalitate nutritiboaren analisiak gaintzen ditueenak bakarrik onartzen dira. Aukeraketa zorrotza izaten da, eta kontuan hartzen dira patataren itxura erregularra, tamaina homoginoa, kalitate nutritiboa eta defekturik bako azala izatea, patata bako txahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Arabako Patataren araudian, hainbat patata mota dagoz onartuta, baina aurten bi izango dira nagusiki merkatuan ikusiko doguzenak: Monalisa eta Kenebeck.

Monalisa patata belaunaldi barrien patata da, itxura leun eta garbia daukana. Barrutik eta kanpotik hori kolorekoa da; frijitzeko eta mikrouhinerako oso aproposa da. 3 kiloko sareko poltsa horietan aurkezten da.

Kenebeck barietatea Araban oso errotuta dago eta tradizio handia dauka. Azala kolore hori argikoa da eta mamia zuria. Zapore bikaina dauka eta

oso egokia da frijitzeko eta gisatuak egiteko: altxor bat da gure sukalde eta aho sabairako. Bere kalitatea bermatzeko ez da garbituta aurkezten (lur hondarrak daukaz), izan be argiagazko oso sentikorra da, eta ezin da lar maneiatu. 4 kiloko sareko poltsa zurietan aurkezten da.

Arabako Patata be, Eusko Label produktu guztiak legez, erabat kontrolatuta dago.

### Datuak

Igazkoa oso urte ona izan zen patataren ekoizpenean; Eusko Label bereizgarriagaz lan egiten eben 13 ekoizlek 2 milioi eta 200 mila kilo inguru patata ateratu zituen merkatura. Aurten-goagaitik, ordea, ezin dogu gauza bera esan, udabarrian izan zen eguraldi hotz eta eurtsuak kalte egindeutso patata ekoizpenari, eta aurten, beraz, oraindino denboraldia amaitu barik egon arren, kilo gitxiago komertzializatuko dira Eusko Label markapean.

### Patata tortilla

#### OSAGAIK:

- 2 Tipulina xehatu
- Piper berde xehatu 1
- Baratxuri atal xehatu 1
- 6 Eusko Label Arabako patata zati txikitatu
- 6 Eusko Label arrautza
- Gatza eta oliba olio ugari

#### Zelan egin:

Olio ugari daukan zartagin handi bat su bizitan jarriko dogu eta olio beroa dela ikusitakoan, tipulina, piperra, baratxuria eta patatak jarriko doguz. Sua erdira jaitsi eta egiten itzi, 20 minutu inguru. Garrantzia dauka barazkia apur bat gorrituta geratzeak. Bitsaderarekin barazkiak aterako doguz.

Arrautzak apurtzeko azken unera arte egongo gara, behin apurtuta irabiatu eta gatza botako deutsegu eta nahasketa honi gehituko deusaguz barazki eta patata xukatuak.

Dena ondo nahastatu, eta olio tanta batez sutan zain daukagun zartaginean bota guztia. Mugimendu borobilak eragingo deusaguz zartaginean, tortilla itsatsi ez daiten. Eta minutu erdi inguru pasatu denean, plater huts baten laguntzaz, irauli egingo dogu tortilla eta beste aldetik egiten jarri, oraingoan beste olio tanta bat boteaz zartaginean. Amaitzeko, tortilla guk gura dogun beste mamitu denean, plater batean zerbitzatuko dogu.

On egin!

### ARDAOAREN NEGARRA "Ardao faltsuei stop!"



Mikel Garaizabal  
Enologoa

**E**z dira sasoi onak faltsukerietan murgilduta dabilzen pertsonaiendako. Krisi madarikatua baino lehenago, garai ekonomikoa ona zenean, ardao bitxiak, arraroak eta ekoizpen txikiak inoiz baino kotizatuagoak zegoen mundu guztiko enkante etxeetan; batez be, txinatar eta erusiar aberats barrien eskaerarengaitik. Batzuek "boom" hori aprobetxatu eben eta ardao botila faltsuen komertzializazioa asko igo zen. Faltsukeriei aurre egiteko eta gauzak gatz jartzeko asmoz, Suitzako enpresa batek segurtasun zinta bat daukan etiketa berezia merkaturatu dau. Banderola itxura daukan etiketa horretan billeteetan agertzen den inpresino sistema erabiltzeaz gainera, numerazio bati esker, botila ardaok izan dauen trazabilitate guztia ezagutu geinke.

## Eusko Labela: ona den seinale



Itzumenendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

#### Abadiño

- PINILLA HARATEGIA TRAIABARREN, 29-MATIENA

#### Zaldibar

- GALLASTEGI HARATEGIA ZALDUASOLO PLAZA, 8

#### Otxandio

- GAZTAÑETA HARATEGIA ARTEKALE, 25

#### Durango

- GALLASTEGI HARATEGIA ANTISO ESTEGIZ KALEA, 1

#### Inaki

- INAKI HARATEGIA SASIKOA KALEA, 10

#### Oka

- OKA HARATEGIA ANDRA MARI, 3

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Haragitegi Baimenduak

**Especializatuak:** Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak. Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irabaz dezakezu.



Goi-mailako elikagaiak  
Alimentos de calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"  
Anboto Astekaria  
Santana, 6  
48200 Durango

Hilero azken ostiralean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezti, idiazabal gazta 1/2, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Errioxako Ardoa", botella 1 Arabar Errioxako Olio Birjina, Txakolimezko bonbol-kutxa 1 eta 30Eko txantel 1 Euskal Okelaz, Euskal Ernie Bilabotaz edo Euskal Baserriko Ollaskoaz trukatzeko.





Jasone Agirre  
Kazetaria

Zatoz isilik

Xxiii, bakarrik zaude? Ez. Ba, isil-isilik hartu Anboto eta zoaz bazter batera, bakar-bakarrik zauden lekuren batera. Zatoz, gure artean bakarrik berba egin gura dut eta, inork ikusi barik.

Ez nago lasai, ez dakit, baina aspaldian susmo txarra hartuta nago. Zeozer ari da gertatzen "lauhortzeko" zutabe honetan. Lehenengo Julenek esan zuen agur, gero Amurizak. Neu izango ote naiz hurrengoa?

Hasieran pentsatu nuen EREren bat izango zela. Baina kia, ezin da izan, hemen debalde egiten dugu eta beharra!

Anboton eskandaluren bat ote zegoen pentsatu nuen gero. Vocentok erosi ote du, eta marinelek ontzitik salto egin ote dute? Zer kristo?

**Hasieran pentsatu nuen ERE bat izango zela. Baina, kia, ezin da izan. hemen debalde dihardugu**

Horrela hasteko asmoa neukan nire agur zutabea, agur esaten hurrengoa izango nintzelakoan, eta errealtate sinpleari hain gustuko dudana konspirazio usaina ematearren. Baina ez, Julenek atsedena hartu ei du, eta Amurizak erretiroa. Beste barik. Eta nik agurrikez, beraz.

Dena dela, esan esango dizut, zuri bakarrik, pentsatuta neukan agurra. Eskerrak eman gura nizkion Inesi, nire idatziak gustuko dituela esan didan azkenari; Maiteri, telefonotik deitzen didalako gustuko dituen; Bikiri gehiago idazteko animoak ematen dizkidalako beti; eta zuri, azken lerro honetaraino helzteagatik.

# "Athleticen kamiseta jantzi dauenak betiko dauka sentimendua"

Carmelo Cedrun oromiñarra futboleko mito handi bat da. 1951tik 1965era jokatu eban Athleticen

**A**thleticen historiako orrialde gogoangarrienetakoak idatzi ditu Carmelo Cedrun iurretarrak. Puscas, Di Estefano, Pele eta Kubala lakoen aurrean, Oromiñoko atezaina ez zen kikiltzen. Carmeloren bizipenen kontakizunek harrapatu egin gaitue. Talde handienei irabazterakoan San Mameseko harmailetan sortzen zen algara ilusinoz zelan kontatzen dauen entzutean, imajinazioak hegaz egin deusku. Ez da gitxiagorako. Urte haretan talde zurigorriak lau kopa eta liga bat irabazi zituen. Beste sasoi batzuk ziren, baina.

**Penaltiak gelditzen handia zinen.**

Kubalak 268 penalti huts egin barik sartu zituen, eta neuk zapuztu neutsan errekorra. 1958an hortxe eliminatu genduen Bartzelona, eta Real Madrilen kontra finalera joan ginen. Poz gehien emon euskun partidua izan zen.

**Kotxe garestiekin barik bizikletaz joaten zinen entrenatzera.**

Trenera bizikletaz joaten nintzen, bai. Makinista geure laguna zen, eta lantzean behin sarrera bat emoten neutsan. Inoiz bizikletaz berandu nentorrela ikusita, trena neure zain gelditzen zen Euban.

**Ederto entrenatzen zinen.**

Oromiñoko baserrian entrenatzen nintzen lobekin. Sasoi haretan ez genduen erraztasunik aurkarien partiduak ikusi eta euren jokatzeko modua ezagutzeko. Orain, telebistaz jokaldi guztiak aztertzen ditue.

**Informazioa jasotzeko bazeukan, baina, zure modua.**

Bai. Joaten ginen lekuetako hotelako kamareroek sarrerak eskatzen euskuezen, eta hareei galdeztzen neutsen ia zelako jokalaria ziren eta **n o r a** botatzen eben.

**Athletic bihotzean daroazu.**

Bost urtetik gora kamiseta hori jantzi dauenak betiko dauka sentimendua. Pele, Di Estefano... horreen kontra hemengo baserri-tarrek jokatzten genduen, eta irabazi egiten geuntsen.

**Orain, barriz, estuasun handiagoak pasatzen ditue.**

Partiduak ikusterakoan haserretu egiten naz. Orain akomodatuta dagoz. Dibertsino eta diru larregi daukie. Ez da lehengo jokalaria indartsurik irtetzen. Orain papilekin dabilz eta! Gure sasoiaren atsedena kafea haritzen genduen.

**Cedrun ala Sedrun deituko zaitugu?**

Soldadutzatik libratzeko Athleticen presidentek abizena aldatu eustan, eta halantxik gelditu da, "c"-gaz. Bestela, Afrikara bialduko nindueen.

**Hamasei urtean Athleticen jokatu eta gero Espanyolera joatea gogorra egin-go jatzun.**

Iribar gelditu zen atezain, eta Espanyolek 15 milioi ordaindu zituen neugaitik. Beti esaten dot, brometan, San Mameseko argiak neureak direla. Neure diruaz ipini ebezela.

**Espanyolagaz Athleticen kontra jokatu zenduen San Mamesen.**

Hainbeste urte Athleticen jokatu-ta, Espanyolegaz 3-1 irabazi neban San Mamesen. Bihotza apurtu jatan. Patidu horreek ez ditut sekula ahaztuko.

**Handik Estatu Batuetara joan zinen, Baltimorrera.**

Zortzi hilabete egin nituen han. Egun baten, Canadiana jokatzten, 8 gradu zero azpitik geunkazen, eta hurrengo partidua Los Angelesen 42 gradutara. Aldaketa handiak egoten ziren. Baltimorren portua dagoenez, gernikar asko zegoen, eta hareekin pozik ibiltzen nintzen.

**Athleticek zor deutsun omenaldia noizko?**

Ez dot gura. Denpora asko pasatu da. Orue eta Canitona ikusita... kanpoa erdi beteta... Omenaldiak ez dau harrera onik izan.

**Andoni semeak zure bidea jarraitu dau.**

Bai. Athleticen atezainak txarto zebiltzen eta semea hasterakoan hobetu egin eban. Clemente etorri zen, eta ez eban partidurik jokatu. Aspertuta, Zaragozara joan zen eta denak irabazi zituen. Asko maite dabe han.

**Entrenatzaile lez be arrakasta handia izan dozu.**

Lehenengo Barakaldo txapeldun egin neban. Leonesan, Celtan, Murtzian... eta La Linea de la Concepcionen Linense entrenatzen gustura ibili nintzen.

**Hainbeste joan-etorrigaz, emazteak zer esaten eban?**

Andra itzela izan dot, ze semeak oso ondo hezi ditu. Neuk baino meritu handiagoa dauka berak.

**Carmelo Cedrun**

Athleticeko atezain ohia

79 urte daukaz



**BOZKATU**  **EAJ PNV**  
jakin eta egin

- Orain inoiz baino gehiago, bakea lortzeko gai den Lehendakaria behar dugu.
- Orain inoiz baino gehiago, pertsonen Lehendakaria behar dugu.

**ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO**